



Emakumeen eta gizonen **BERDINTASUNERAKO** plana



BERDINTASUNA

2022-2024



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURKIBIDEA

Aurkezpena	1
Sarrera	2
1. Gobernu Programa	6
2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana	19
3. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren plangintza estrategikoa	26
3.1. Diagnostikoaren datu garrantzitsuak	26
3.1.1 Gobernu ona	26
3.1.2 Esku hartzeko ardatzak	37
3.2. Helburu estrategikoak	63
4. Plana kudeatzeko eredia	67
4.1. Berdintasunerako urteko plangintza	67
4.2. Berdintasunerako egiturak	67
4.3. Jarraipen-sistema	68
4.4. Komunikazio-sistema	70
4.5. Aurrekontu-sistema	70

AURKEZPENA



Berdintasunerako planak funtsezko tresnak dira arlo horretan esku-hartze publiko koordinatua, koherentea, efizientea eta eraginkorra ahalbidetzeko. Emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrerapausoak emateko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak hartu duen benetako konpromiso politikoa dokumentu honetan islatzen da, horretarako aurrekontu-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak izatea dakarren plangintza estrategiko batekin. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren nortasun-ikur dira, betidanik eta are gehiago Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea, sail horretan sartu zenetik.

Era berean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak modu erantzukidean eta koordinatuan lan egiten jarraituko du berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloan parte hartzen duen egitura politiko eta tekniko guztietan – sailartekoak zein erakundeartekoak –.

Azkenik, plangintza horrek koherentea izan nahi du Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-politikarekin, eta, horregatik, herritarrei jakinarazi nahi die zein diren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak ezartzeko hartu dituen konpromisoak eta politika horien garapenean lortu nahi ditugun aurrerapenak.

Izan ere, gure gizarteak aurrera egin du emakumeen egoera hobetzen, bai eta gizonekiko harreman sozialetan duten posizioa hobetzen ere, baina oraindik bidea dugu egiteko, eta, bide horretan, erakunde guztien eta gizarte osoaren konpromisoa eta lana ezinbestekoak dira.

Laburbilduz, plan hau pertsona askoren konpromisoa eta ahalegina, negoziazioa eta akordioa gauzatzea da. Eskerrak eman nahi dizkiet. Ziur nago balio handia duela gure jarduera guztietan genero-ikuspegia txertatuz desberdintasunak gainditzeko, Euskadi eredu izan dadin, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko erreferentziatzeko figura izan dadin.

Nerea Melgosa Vega

Sailburua

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila



SARRERA

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana XII. Legealdian sail honek berdintasunaren alorrean sustatuko dituen politiken gidalerroak biltzen dituen esparru-agiria da.

Aipatutako agiriarekin Sailak *Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen* (otsailaren 18ko 4/2005) aginduari erantzuten dio. Zentzu horretan, honakoa xedatzen du aipatutako legearen 15. artikulua:

⇒ «1.– Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartuko du, eta, plan horretan, esku-hartze ildoak eta gidalerroak jasoko dira, koordinatuta eta oro har, euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak gidatzeko. Plan hori egiteko orduan, Eusko Jaurlaritzak parte hartzeko aukera eman behar die gainerako euskal administrazio publikoei, talde feministei eta emakume taldeei, beste gizarte-eragile batzuei eta, oro har, herritar guztiei. Halaber, erraztu behar du 3.1 artikulua azken tartekian aipatutako emakumeen interesak ordezkatzeko dituzten kolektiboak edo antolakundeak egotea.

⇒ 2.– Lehenengo paragrafoan aurreikusitako plan orokorraren esku-hartze ildo eta gidalerro horiek garatzerakoan, **Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere jarduketa-plan propioa egingo du legegintzaldi bakoitzean; plan horiek behar diren baliabide pertsonal, ekonomiko eta materialez hornituta egongo dira, benetan ezarriko direla bermatzeko.** Sail bakoitzak zehaztuko du, nork bere ezaugarrien arabera eta efikazia-irizpideak kontuan hartuta, nola koordinatu bere organismo autonomoekin eta atxikitako edo lotutako erakunde publikoekin, plan horiek egiteko.»

Plan orokor hori Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 19an onartu zuen VII. Plana da, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 15.1 artikulua betez.

Gainera, esan behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak 2021eko uztailaren 5ean egindako bileran honako irizpide hauek erabaki zirela XII. Legegintzaldiko sail-planei dagokienez:

- Planen iraupena: 2022-2024

- Erreferentziako dokumentuak: 2020-2024 Gobernu-Programa. XII. Legegintzaldia eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.



AURREKARIAK

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Planak 3 plan izan zituen aurretik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-arloko jardunerako.

SAILAREN BERDINTASUN-PLANAK	INDARRALDIA
⇒ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako programa dokumentua. IX. Legealdia	2010-2013
⇒ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako programa dokumentua. X. Legealdia	2014-2016
⇒ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako programa dokumentua. XI. Legealdia	2018-2021

Dokumentu planifikatzaile hau aurrekoetatik bereizten duena da jarraitu zaion plangintza-eredua zentratuago dagoela Sailak Gobernu-programan hartu dituen konpromisoetan, kontuan hartzen baititu EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. planaren ardatz, programa eta helburuak; izan ere, Saila erakunde inplikatu gisa agertzen da horietan.

Gainera, azpimarratu behar da Sailaren eskumenak aldatu egin direla *Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren* arabera. Gaur egun, sailaren egitura hiru sailburuordetzatan egituratzen da: Justizia, Gizarte Politikak eta Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzak. Sailburuordetza horiek, aldi berean, hainbat zuzendaritzatan egituratzen dira, jarduteko gai espezifiko bakoitzaren arabera. Era berean, badira Saileko sailburuaren zuzeneko mendekotasun hierarkikoa duten beste organo batzuk: Kabinete Zuzendaritza, Komunikazio Zuzendaritza eta Zerbitzu Zuzendaritza.

Era berean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak funtsezko hiru arlotan jarduteko arloak dituzten beste erakunde batzuk ere baditu:

- ⇒ **Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari** dagokio genero-arloko aukera-berdintasunaren jarduera-arloa eta genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko politiken zuzendaritza- eta koordinazio-arloa, haren eginkizunak sortu eta arautzen dituen otsailaren 5eko 2/1988 Legean aurreikusitakoa betez.
- ⇒ **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari** dagokio garapen-lankidetzako jardun-arloa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legean aurreikusitakoa betez.
- ⇒ **Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen** Institutuari dagokio memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloa, azaroaren 27ko 4/2014 Legean ezarritakoaren arabera.

- ⇒ Espetxe-politikaren eta gizarteratzearen arloa **Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentziaren** esku dago, hori sortu eta arautzen duen irailaren 30eko 3/2021 Legean aurreikusitakoa betez.

DOKUMENTUAREN EGITURA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana euskal herri-aginteen jarduera zuzentzeko dokumentua da, legegintzaldi honetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan aurrera egiteko. Alde horretatik, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagokio esku hartzeko estrategiak definitzea, berdintasun-politikak gauzatzeko bere eskumen-esparruan, dela zuzendaritzetan, dela erakunde autonomoetan, dela sozietate publikoetan edota atxikitako erakundeetan.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Planak eduki hauek ditu:

- ⇒ Lehenik eta behin Eusko Jaurlaritzaren XII. Legealdirako Gobernu-programaren barruan Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkion konpromisoak eta ekimenak adierazten dira, baita, haren zuzeneko eskumenekoak ez izan arren, Sailaren laguntza izango duten konpromiso eta ekimenak ere.
- ⇒ Bigarrenik, Emakundek landutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana aurkezten da eta bertan jasotako programak eta helburuak xehatzen dira, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eskumena edo zerikusia duen programa eta helburuekin batera.
- ⇒ Hirugarrenik, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren plangintza estrategikoa azaltzen da, gobernu onerako programa bakoitzean Sailak duen konpromiso mailaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean esku hartzeko ardatz bakoitzaren diagnostikoa egiten duena. Halaber, planaren garapenaren bidez eragin nahi zaion arlo bakoitzaren alderdi garrantzitsuak nabarmentzen dira. Ondoren, helburu estrategikoak jasotzen dira, Sailak berdintasunaren alorrean duen esku-hartzea biltzen dutenak.
- ⇒ Azkenik, plana kudeatzeko sistemaren eredia azaltzen da, planaren ezarpena, jarraipena, ebaluazioa eta komunikazioa bermatuko dituenak.

PRESTAKETA-PROZESUA

Nabarmentzekoa da plangintza hori egiteko, genero-arrakala nagusiak eta berdintasun-politikak ezartzeko aurreko ibilbidea ezagutu direla. Diagnostiko horretatik abiatuta, plangintzarako prozesu bat aktibatu da, eta Saileko zuzendaritza guztiek parte hartu dute prozesu horretan.


Prozesu hori honelakoa izan da:



LANAREN FASEAK	DATAK
⇒ Saileko berdintasun egoeraren inguruko diagnostikoa eguneratzea	2022ko otsaila-urria
⇒ Kontraste tekniko/politikoak: legealdiko lehen tasunen kontrastea, berdintasun diagnostikoaren eta planifikazioaren kontrastea.	2022ko urria
⇒ Saileko legealdiko plana Emakundera helaraztea, planari buruzko informazioa emateko eta proposamenak txertatzeko	2022ko abendua
⇒ Zuzendaritza Kontseiluaren onarpena	2023ko otsaila

ESKUMEN-EGITURA

Jarraian, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumen-esparrua azalduko da eskema moduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak non txertatuko diren zehaztuz.





1 GOBERNU-PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzaren XII. Legealdirako Gobernu Programak 3 printzipio, 4 ardatz, 10 herri helburu, 25 jarduketa-arlo, 150 konpromiso eta 699 ekimen biltzen ditu. Helburu horien artean, **Euskadi genero-indizerik altuena duten Europako 6 herrialdeen artean kokatzea** nabarmentzen da. Europar Batasuneko berdintasun-indizea 71,1 puntutan kokatzen zen EAEn 2017an, 1etik 100erako eskala batean. Horrek berresten du pixkanaka hobetzen ari direla 2010ean (68,8 puntu), 2012an (69,1 puntu) eta 2015ean (69,3 puntu) lortutako kalifikazioak.

Jarraian zehazten da Gobernu-programako zer konpromiso eta ekimen diren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumenekoak (kontuan hartu behar da Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundeak eta Gogorak- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak berdintasunerako plan propioa izan behar dutela eta, beraz, erakunde autonomo horren konpromiso eta ekimenak horien legegintzaldiko planari dagokion eranskinean jasoko dira).

Ekimen guztien artetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zehaztera bideratutakoak nabarmenduko ditugu.

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO GOBERNU PROGRAMAN	
76	Bazterkeria-arriskuko egoeran dauden pertsonen arreta emateko lurralde-sareen finkapena babestea.
	<p>1. ekinbidea. Estrategia integral bat abiaraztea, babes egonkorak behar dituzten eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako arreta bermatzeko, zehazki, gizarteratzearen eta esku-hartzearen eremutik.</p> <p>2 ekinbidea. Aurrera egitea lurralde bakoitzean gizarte-zerbitzuen sarea hedatzeko, gizarteratzeko ibilbide desberdinekiko modu koherentean eta integratuan.</p>
77	Zaugarritasun eta babesgabetasun bereziko egoerei arreta ematea.
	<p>1. ekinbidea: Etxerik gabeko pertsonekin, energia-txirotasunarekin eta bereziki ahulak diren pertsonen eragiten dizkieten bestelako egoera batzuekin (adinekoak, gazteak, haurrak, ezgaituak...) lotutako prebentzio- eta kudeaketa-jarduketak indartzea, arreta berezia emanez diskriminazio anitzeko egoerak jasaten dituztenei eta/edo gizarte-babeseko sarerik ez duten pertsonen (nahi gabeko bakardadea...).</p> <p>2. ekinbidea: Europar Batasunaren gomendioei jarraiki, haur-bermeko programa sustatzea, haurren txirotasunaren aurkako estrategia globalaren funtsezko elementu gisa, ardurapeko seme-alabak dituzten familientzako diru-sarrerak bermatzeko errenta hobetuz.</p> <p>3. ekinbidea: Diskriminazioaren Behatoki bat abiaraztea.</p>
78	Gizarte-zerbitzuen euskal sistema garatzea erkidego-ikuspegia kontuan hartuz eta kalitateko, berrikuntzako, zaintzen oreka berriko eta eraginkortasuneko printzipioetan oinarrituz.



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO GOBERNU PROGRAMAN

1. ekinbidea: Gizarte-zerbitzuen II. Plan Estrategikoa egitea eta gizarte-zerbitzuen erakunde arteko funtsa finkatzea, Gizarte-zerbitzuen eta Prestazioen Zorroan aurreikusitako prestazioak eta zerbitzuak bermatze aldera.

2. ekinbidea: 2015eko Zorroaren Dekretua ebaluatzea eta gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren katalogoaren plangintzan, koordinazioan eta araudi-garapenean aurrera egitea, erakunde arduradunek bere eskumenen eta baliabideen arabera adostutako eta hornitutako finantzaketa-eredu jasangarri bat ezarri. Halaber, saiatuko da, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren berrikuntzarako, kohesiorako eta kalitaterako erakunde arteko egungo funtsa, behin baliabideak banatzeko barne-ereduan txertatuta, zaintzen eremuko ikerketarekin, teknologiarekin eta lanpostuen sorrerarekin eta Europar Batasunak sustatutako proiektuekin lotuta egotea.

3. ekinbidea: Gizarte Zerbitzuen euskal sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroa amaitzea, batez ere, adinekoentzako arretari dagokionez, zaintzaren, laguntzaren, ostatuaren eta arretaren eremuetan.

4. ekinbidea: Adinekoen egoitzak arautzen dituen dekretua egokitzea, zerbitzuak ituntzeko araubidea arautzen duen araudi bat sustatuz, horien garapenerako baldintza egokiak bermatzeko eta gizartezerbitzuak egonkortasun, sarbide-eskakizun, hornidura, prezio eta konkurrentziari dagokionez homogenea den esparru egoki batean emateko.

79

Gizarte- eta erkidego-garapena indartzea.

1. ekinbidea: Hurbiltasun handieneko prestazioak eta zerbitzuak indartzea, arretako erkidego-ereduan eta kalitatezko boluntariotzaren esparru europarrean sakonduz, hain zuzen ere, erabiltzaileen parte-hartzearekin eta horien eskubideen errespetutik zein sektoreko profesionalen lanaren kalitatearen bermetik abiatuta.

2. ekinbidea: Programa integral bat abiaraztea gizarteratzerako babesak antolatzeko, hobetzeko eta bermatzeko, zehazki, gizarteratze-hitzarmenen bidez eta erreferentziako profesionalak esleituz, betiere diru-sarrerak bermatzeko politikaren eta bestelako politiken (gizarte-zerbitzuak, gizarte-lanekoak, soziosanitarioak...) arteko osagarritasuneko berariazko premien arabera.

3. ekinbidea: Arreta-piramidearen inbertsioaren segimendua egitea eta estrategia integral bat planifikatzea, bere ohiko etxebizitzan bizi diren pertsonentzako zerbitzuak indartuz, bizitzeko erabateko autonomia bermatzeko.

80

Gizarte-zerbitzuen berrikuntza eta ebaluazioa eta kalitatea sustatzea, emaitza-irizpideekin eta erabilgarritasun publikoko irizpideekin.

1. ekinbidea: Gizarte-berrikuntzako sistema bat eta l+G+b sistema bat abiaraztea gizarte-zerbitzuen eremuan.

2. ekinbidea: Fortalecer la evaluación de los servicios sociales de responsabilidad pública, con especial atención a las personas destinatarias y a sus familias, así como la sistematización y transferencia de conocimiento. Erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen ebaluazioa indartzea, arreta berezia jarriz pertsona hartzaileengan eta horien familiengan. Aurrekoaz gain, ezagutzaren sistematizazioa eta transferentzia indartuko dira.

3. ekinbidea: Eten digitala murrizten saiatzea.

4. ekinbidea: Sustatzea eten digitala murrizten eta etxeko arretarekin eta erabiltzaileen zein horien zaintzaileen eta senideen zaintzarekin lotutako teknologia eta aplikazio digital berritzaileen sarbidea, garapena eta ezarpena errazten dituzten proiektuak.

81

Bultzada estrategikoa ematea zahartze aktiboari eta adinekoen autonomia pertsonala, parte-hartze soziala eta bizitza osoa eta osasuntsua sustatzea.

1. ekinbidea: Euskadi osora hedatzea adinekoekin lagunkoiak diren herrien eta hirien sarea: "Euskadi Lagunkoia Sustraietatik".



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO GOBERNU PROGRAMAN

2. ekinbidea: Sarean integratzea zahartze aktibo eta osasuntsuko estrategia eta baita ere adinekoen talentuaren garapena, genero-ikuspegia txertatuz, bizitza osoa (bere premiak asetzea) eta berezko gizarte-premiei edo hirugarrenen premiei erantzuteko prozesuan aktiboki parte hartzea bultzatuz.

3. ekinbidea: Proiektu pilotuak garatzea, egokitzapen digitala edo gazteekiko belaunaldi arteko ekintzak bezalako eremuetan zahartze aktiboa sustatzeko.

4. ekinbidea: Adineko herritarrak aholkatzea eta ahalduntzea interesatzen zaizkien gaietan eta eremuetan: oinarritzko finantza-prestakuntza, jaraunspenak eta bizi-testamentua.

5. ekinbidea: Zahartze aktiboko indize europarrarekin lerrotatutako zahartze aktiborako euskal estrategia bat onestea..

6. ekinbidea: Hirugarren adinerako trantsizioa prestatzeko programa berri bat sustatzea.

7. ekinbidea: Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak bermatzea egoerarik ahulenean dauden pentsiodunei.

8. ekinbidea: Adinekoen talentua baliatzea eta sustatzea, politika publiko guztietan parte har dezaten babestuz.

9. ekinbidea: Adinekoen eta gazteen belaunaldi arteko harremana eta solidaritatea indartzen laguntzen duten programak eta jarduerak sustatzea.

10. ekinbidea: Ondorio horietarako, irisgarritasun-jarduketak burutzeko laguntza-programa zehatzak bultzatuko ditugu (igogailuak eta arkitektura-oztopoak kentzea). Baita ere obrak egingo dira horien etxebizitzaren energia-eraginkortasuna hobetzeko eta, beharrezkoa den kasuetan, adinekoek bizitza duin eta egoki batez goza dezaten errazteko.

82 Bakardade-egoeran dauden adinekoak laguntzea.

1. ekinbidea: Nahi gabeko bakardadearen aurka borrokatzeko erakunde arteko plan bat abiaraztea aldundiekin, udalekin eta hirugarren gizarte-sektoreko antolakuntzekin elkarlanean, hain zuzen ere, gizarte-sektore ugariari eragiten dizkieten egoera hauen begirada zabal eta global batetik abiatuta. Gainera, plan honek etxez etxeko bisitak indartzea jasoko du adinekoen kasurako.

2. ekinbidea: Telelaguntzako zerbitzua hedatzea 80 urtetik gorako pertsona guztietara eta, apurka-apurka, 65 urtetik gorakoetara eta, zerbitzu horretatik, bakarrik dauden pertsonen arreta profesionala emateko berariazko lerro bat abiaraztea.

3. ekinbidea: Gizarte-zerbitzuetako profesionalen koordinazioan, lehen mailako solidaritateko eta gizarte-boluntariotzako berariazko programa bat garatzea, adinekoen gizarte-isolamendua txirotasun, menpekotasun eta/edo gaixotasuneko egoerekin elkartzen den egoerak goiz detektatzeko.

83 Laguntzaren kalitatea bermatzea eta arreta indartzea adinekoen etxeetan zein horien ingurune hurbilean.

1. ekinbidea: Oinarritzko gizarte-zerbitzuak indartzea, adinekoen etxean ematen zaien arreta hobetzeko.

2. ekinbidea: Zaintzaileek atseden hartzeko programak indartzea.

3. ekinbidea: Bere etxeetan edo egoitzetan bizi diren adinekoentzako arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat sustatzea, osasun-laguntzako lehen mailako sarearekin koordinatuta egongo dena.

4. ekinbidea: Zaintzaileak laguntzeko euskal estrategia abian jartzea.

5. ekinbidea: Zaintzaileen estatutua onartzea, gizonezkoen erantzunkidetasuna sustatuz adineko senideen zaintzetan, zehazki, sensibilizazio-, kontziliazio- eta trebakuntza-neurrien bitartez.



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO GOBERNU PROGRAMAN

6. ekinbidea: Adinekoei arreta emateko bulegoak irekitzea hiru lurralde historikoetan, erakunde eskudunekin koordinatuta.

84

Adineko pertsonen zerbitzurako jarduera ekonomikoa eta gizarte-berrikuntza sustatzea.

1. ekinbidea: Hiru foru aldundiekin eta udalekin batera, "silver economy" edo zilarrezko ekonomia bultzatzeko programa bat garatzea.

2. ekinbidea: Gizarte-berrikuntzako interesguneak finkatzea eta indartzea adinekoentzako arretaren eremuan: Adinberri Gipuzkoan, Nagusi Intelligence Center Bizkaian eta zahartze aktiboari buruzko Berrikuntza-zentroa Araban.

3. ekinbidea: "Silver economy" delakoaren eremuan enpresa-ekimenak eta gizarte-berrikuntza bultzatzea, lerro hori indartzeko egungo deialdietan eta laguntza-programetan.

4. ekinbidea: Espezializazio Adimenduneko RIS3 Euskadi Euskal Strategiaren esparruan, ikerketa aplikatuko proiektuak sustatzea adinekoekin lotutako produktuetan eta zerbitzuetan.

5. ekinbidea: Jardunbide kulturalak sustatzea adinekoen artean, garun-jarduera, oreka emozionala, elkarrekintza eta bakardadea indartzeko, bizitza osoagoa eskainiz.

85

Seme-alabak dituzten familiak laguntzeko eta jaiotze-tasa sustatzeko estrategia integrala garatzea.

1. ekinbidea: Euskadi osorako familia-politika integratu eta koherente bat bultzatzea, aldundiekin eta udalekin elkarlanean.

2. ekinbidea: Seme-alabengatik ematen diren laguntzak apurka-apurka areagotzea eta horien administrazio-simplifikazioa lortzen saiatzea, Europar Batasunarekiko konbergentzian aurrera egiteko helburuarekin, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/ 2008 Legean aurreikusitakoaren arabera.

3. ekinbidea: Foru aldundiekin batera, hausnarketa bat abiaraztea, seme-alabengatik ematen diren zerga kenkariak handitzeko eta progresibitate handiagoko elementuak txertatzeko familien zergatratamenduan.

4. ekinbidea: Sektore pribatuan, gutxienez 16 asteko aitatasun- eta amatasun-baimen berberak eta besterenezinak sustatzea, Lan eta Enplegu Sailarekin lankidetzan.

5. ekinbidea: Kontziliario erantzunkidea indartzea, lan-bizitzaren eta aitatasun positiboaren kontziliarioa sustatzen duten neurriekin, etxeko lanen eta zaintzen gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko banaketa zuzen eta berdinkidean aurrera egiteko, Lan eta Enplegu Sailarekin lankidetzan.

6. ekinbidea: Gizartean zaintzen ekonomiari ospe ona ematen dioten sentsibilizazio-kanpainak egitea, jarduera ekonomikoan egiten duten ekarpena ikusaraziz.

86

Haurren babeserako, prebentziorako eta promoziorako plan integrala.

1. ekinbidea: Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko lege bat onestea, haurtzaroaren eta nerabezaroaren babes, prebentzio eta sustapeneko sistema arautze eta garatze aldera.

2. ekinbidea: Erakunde arteko protokolo bat onestea, haurren aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra bermatzeko, batez ere sexu-abusu eta -esplotazioari eta haur-esplotazioari dagokienez detekzio eta esku-hartze eraginkorrak ziurtatzeko, kasu guztietan bermatuz biktimaren babesa eta horren kaltearen konponketa.

3. ekinbidea: Haurrak babesteko sareak hedatzea, hirugarren sektoreko antolakuntzen eta sektore publikoaren arteko lankidetzak sustatuz.



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO GOBERNU PROGRAMAN

4. ekinbidea: Irakaskuntzan, adin goiztiarretatik, hezkuntza afektibo sexuala lantzea, baita Internetekin lotutako prebentzioa eta erabilera segurua ere.

87 Migrazio-egitatearen aurreko harrera-, integrazio- eta erantzunkidetasun-kultura zibikoa sustatzea eta hedatzea.

1. ekinbidea: Migratzaileak integratzeko eredia sendotzea.

2. ekinbidea: Euskal gizartearen eta bertako elkarte-egituraren integratzeko potentziala garatzea, giza legezko integrazio egokia finkatze aldera.

3. ekinbidea: Migrazioarako Euskal Itun Soziala” hedatzea eta garatzea.

4. ekinbidea: Euskadin, Estatuan eta Europan “Share Proposamena” sustatzea, erantzunkidetasun-printzipioa aplikatzeko mekanismo gisa.

5. ekinbidea: Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin elkarlanean, migratzaileentzako harrera kultureko planak garatzea, Euskadiko Liburutegi Publikoen Sarearen bidez, zehazki, migratzaileen kolektiborik handienei berezko eduki kulturalak eskainiz.

88 Migratzaileak hartzeko estrategia global bat finkatzea.

1. ekinbidea: Euskadira heltzen diren migratzaileak hartzeko euskal eredia onestea eta ezartzea. Eredu hori “Herritarren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuko VI. Jarduketa-planaren” bidez garatuko da, inplikaturako erakundearen eta gizarte-eragileen lankidetzatik eta Herritar immigranteen gizarteratzerako eta parte-hartze sozialerako Foroaren bidez.

2. ekinbidea: Migratzaileen jatorrizko herrialdeetan pilotu esperientziak sustatzea, migrazio-fluxuen kudeaketan laguntzeko, erakunde eta enpresen arteko lankidetzako alde biko proiektuak barne hartuz.

3. ekinbidea: Migratzaileek Euskadiko lan-merkatuan eta aberastasunaren sorreran egiten duten ekarpena nabarmentzea.

89 Asilo-politikaren euskal eredu bat definitu eta sustatzea.

1. ekinbidea: Espainiako Gobernuarekin akordio bat gauzatzea, Euskadik errefuxiatu eta nazioarteko babes-eskatzaileen harrera eta integrazioarako politikak kudeatzeko.

2. ekinbidea: Berezko eskumenen eremuan eta Espainiako Gobernuarekin elkarlanean, harrera eta integrazioarako berezko eredu bat zehaztea. Erkidegoko babesletzaren formulak espazio garrantzitsua izango du eredu horren barruan.

3. ekinbidea: Eremu honetako jarduketa koordinatzen duen erakunde arteko mahai soziala finkatzea.

90 Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileentzako babesa eta estaldura eta laguntza.

1. ekinbidea: Erakunde arteko lankidetzak bultzatzea, bakarrik dauden haur migratzaileei behar duten babesa bermatzeko, horrela gizarteratzeko ibilbideak egin ahal izateko. Gainera, heldutasunerako trantsizioan babesgabatasuna saihesten saiatuko da.

2. ekinbidea: Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabe eta gazte migratzaileak gizarteratzea eta laneratzea sustatzea.

3. ekinbidea: Proposamen bat aurkeztea Espainiako Gobernuari, lan-baimena errazteko migratzaileak 16 urte betetzean, hau da, gainerako nerabeekiko aukera-berdintasunean.



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO GOBERNU PROGRAMAN

4. ekinbidea: Urtero eguneratzea iragaitzako migratzaileei arreta humanitarioa emateko kontingentzia-plana.

5. ekinbidea: Laguntza-azpiegitura balioaniztunen plan bat egitea, migrazio-errealitate desberdinek sortzen dituzten harrera-premiei erantzuteko.

93 Indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumezkoen indarkeriarik gabeko gizarte berdinzale bat eraikitzea.

1. ekinbidea: Indarkeria matxistaren prebentzioa eta horren aurkako borroka eta berdintasunaren bultzada berria berriaz aurreikusten dituen Berdintasun Lege berria onestea.

2. ekinbidea: Herritarren gizarte-itun bat proposatzea, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka.

3. ekinbidea: Erakunde arteko akordioa eguneratzea, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko eta lehenetsuzko, doako eta kalitatezko arreta integrala bermatzeko biktimei eta horien seme-alabei.

4. ekinbidea: Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak identifikatzea sustatzea, gero emakume horiekin esku hartzeko tresna berriak txertatuz.

5. ekinbidea: Espedienteen kudeaketa integratua ahalbidetzen duen leihatila bakarria abiaraztea indarkeria matxistaren biktimei arreta eta babesa emateko, horrela pertsonalizatutako ekintza-programak ezarri ahal izateko.

6. ekinbidea: Biktimentzako eta bere seme-alabentzako diru-laguntzen programa eta gizarteratzeko eta laneratzeko programak indartzea, indarkeriarik gabeko bizitza askea hastea errazteko.

94 Soldata-arrairen aurkako txoke-planaren aplikazioa sustatzea.

Iniciativa 1: Berdintasun-planak bermatzea 50 langile baino gehiagoko enpresetan eta, 50 langile baino gutxiagoko enpresetan, berdintasun-planen negoziazioa sustatzea, betiere Gizarte Elkarriketarako Mahaian lortutako akordioei jarraiki.

Iniciativa 2: Euskadiko laneko ikuskatzailetzan, berdintasun-unitateak indartzea.

Iniciativa 3: Ordutegi-arrazionalizaziorako itun sozial eta politiko bat bultzatzea.

Iniciativa 4: Bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzea ahalbidetuko duen enpresa-kultura berri bat abiaraztea sustatzea.

Iniciativa 5: STEAM bokazioak (zientzia, teknologia, ingeniariak eta matematikak) indartzea hezkuntzaren eremuko emakume gazteen artean, horrela enpleguaren kalitatea areagotzeko.

Iniciativa 6: Emakumeen laneratzeko erraztea etorkizunean eskari handiagoa izango duten lanbideetan.

Iniciativa 7: Zaintzak berdintasun-politiken erdigunean jartzea, gero eta erantzunkideagoa den gizarte-antolakuntza batean aurrera egiteko eta "kontziliaziotik erantzunkidetasunerako" trantsizioa egiteko.

95 Balio-aldaketa eta emakume eta nesken ahalduak ahalbidetzea.

1. ekinbidea: Berdintasun eta hezkidetzako programak indartzea adin goiztiarretatik eta, zehazki, Hezkidetzarako II. Planaren eta "Nahiko Programaren" ezarpena indartzea, lau urtetik beherako haurrei zuzendutako material berriekin.

2. ekinbidea: Emakumeen elkarte-mugimenduaren eta mundu feministaren ekimenak sustatzea ahalduak-proiektuetan eta balio-aldaketako proiektuetan.



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO GOBERNU PROGRAMAN

3. ekinbidea: Aurrera egitea interseksionalitatean, emakume guztien premia desberdinei hobeto erantzuteko.	
4. ekinbidea: Gizonduz Programa indartzea, gizonezkoen benetako inplikazioa lortzeko berdintasunaren aldeko borrokan.	
5. ekinbidea: Emakumeen laneratzea sustatzea, horien autonomia ekonomikoa bermatze aldera, bereziki, gizonezkoek egin izan dituzten lanetan.	
96	Sexu-orientazioaren ondoriozko diskriminazioaren aurkako politikak sustatzea.
1. ekinbidea: Dibertsitate-berdintasunari eta sexu-orientazioaren ondoriozko bereizkeriaren aurka borrokatzeari buruzko lege integral bat onestea.	
2. ekinbidea: Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen aldaketa sustatzea, transexualen eta transgeneroen elkarrekin eta adingabe transexualen familien elkarrekin adostutako akordioei jarraiki.	
3. ekinbidea: Hezkuntzaren esparruan, eta Hezkuntza sailarekin lankidetzan, sexu- eta familia-aniztasuna onartzea sustatzea, haurrek beren nortasuna eta sexu-orientazioa askatasunez eta bereizkeriarik gabe gara dezaten.	
4. ekinbidea: Diskriminazio-egoerak jasaten dituzten LGTBI pertsonak babesteko "Berdindu Programa" indartzea.	
5. ekinbidea: Programak garatzea, bere sexu-orientazioagatik, pertsonen osasuna gutxitzen duten kalteak eta bestelako gizarte-faktoreak murrizteko.	
97	Sistema judizial modernoa bultzatzea.
1. ekinbidea: Justiziaren Plan Estrategiko bat onestea, pertsonengan zentratutako justizia arina, eraginkorra eta digitalizatua eraikitzeke parametroak ezarriko dituen.	
2. ekinbidea: Bulego judizial berriaren ezarpena bultzatzea, dagoeneko abian dauden bulegoen ebaluazioa egin ostean.	
3. ekinbidea: Azpiegitura judizialen programa integral bat egikaritzea, energia-eraginkortasuna, mugikortasun jasangarria eta irisgarritasun unibertsala kontuan hartzen dituen.	
4. ekinbidea: Justizia-administrazioko langileen baldintzak hobetzea, lan-baldintzen IV. akordioa garatuz, lanpostuen zerrendaren balorazioa amaitzeko, behin-behinekotasun tasa baxuak mantentzeko eta prestakuntza- eta ordainsari-planak sustatzeko.	
5. ekinbidea: Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutua Modernizatzea.	
6. ekinbidea: Sistema judizialaren zabalkundea sustatzea "Justizian hezte" programaren bidez.	
98	Justizia arin, eraginkor eta digitalizatuago baten eraketan aurrera egitea.
1. ekinbidea: Justizia Digitaleko Plan berri bat onestea, epaitegi eta auzitegien digitalizazio integrala lortzeko, espediente judizial elektronikoa amaitzeko, izapide digitalak egoitza judizial elektronikoaren bidez garatzeko eta bideo-konferentzien bidez jarduketak sustatzeko.	
2. ekinbidea: Hurbiltasuneko justizia indartzea, bake-epaitegietan baliabide materialak eta giza baliabideak areagotuz.	



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO GOBERNU PROGRAMAN

3. ekinbidea: “Familiarteko topaguneen” handipen- eta deskontzentrazio-prozesua indartzea, udalekin dagozkien hitzarmenak sinatuz.	
4. ekinbidea: Udalekin eta beste operadore juridiko batzuekin, hausnarketa bat garatzea Euskadiko egungo mugaketa- eta barruti-egituraren inguruan.	
99	Pertsonengan zentratutako justizia hurbilagoa eta errestitatiboa sustatzea.
1. ekinbidea: Justizia babesteko zerbitzuen hedapena eta horietarako orientazioa sustatzea, hain zuzen ere, zerbitzu-kartak garatuz.	
2. ekinbidea: Justizia errestitatiboko zerbitzua indartzea, gatazkak ebazteko bestelako bitartekoak sustatzeko eta finkatzeko plan baten ezarpenarekin.	
3. ekinbidea: Bitartekaritza judizialaren doakotasuna bermatzea.	
4. ekinbidea: Justizia errestitatiboa finkatzea zigor- eta familia-ordenetan.	
5. ekinbidea: .Negoziazio- edo bitartekaritza-praktikak sustatzea jurisdikzio-ordena hauetan: administrazioarekiko auziena, soziala eta zibila.	
6. ekinbidea: Aurrera egitea hizkuntza-normalizaziorako planean, Euskadiko hizkuntza ofiziala den aldetik, herritarrak justiziaren eremuan euskara erabiltzeko duten eskubidea betearazteko.	
7. ekinbidea: Gazte Justiziaren V. Plana onestea, gatazken ebazpenean bitartekaritzaren, kontziliazioaren eta konponketaren alde egiten duen gazte justiziako euskal zerbitzu bat garatuz, gazteen berrerortze-tasa murrizteko eta % 15aren azpitik kokatzeko xedearekin.	
8. ekinbidea: Plaza nahikoak daudela ziurtatzea, zigor-arloko legea urratu duten adingabeei judizialki ezarritako neurri guztiak erantzuteko.	
9. ekinbidea: Kanpoko profesionalek aldizka ikuskatzea adingabe arau-hausleak barneratzeko hezkuntzazentroen funtzionamendu-sistemak eta langileen lana.	
10. ekinbidea: Fiskaltzaren eta polizia judizialaren jarduketa-unitatea indartzea desagertutako pertsonen dagokienez.	
11. ekinbidea: Jarduera judiziala berraktibatzeke jarduketa-plan bat ezartzea, horrela COVID-19aren ondorioei aurre egiteko.	
12. ekinbidea: Arreta berezia ematea indarkeria matxistaren biktimei, Emakumearen aurkako Indarkeriaren aurrean jartudeto Plana garatuz.	
13. ekinbidea: Auzitegiko balorazio integralerako unitateen jarduketa eta talde psikosozialak indartzea, arriskuaren detekzio goiztiarrerako eta adingabeen egoeraren inguruko balorazio eraginkorra egiteko indarkeria matxistako kasuetan.	
14. ekinbidea: Justiziaren zerbitzu guztiak egokitzea Istanbuleko Hitzarmenak jasotzen duen emakumearen aurkako indarkeriaren definiziora.	
15. ekinbidea: Epaitegietan berriazko atal bat abiaraztea indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko, langile eta materialaren zuzkidura nahikoarekin, horrela biktima horiei indarkeria ororen aurkako babes integrala ematea lortzeko.	
16. ekinbidea: Emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko plana garatzea, erakunde arteko koordinazioa indartzeko, emakumeen aurkako indarkeriako epaitegietako langileen prestakuntza hobetzeko eta biktimei informazioa, arreta eta laguntza emateko zerbitzu integralak indartzeko eta instalazioak egokitzeko (Zurekin Programa).	



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO GOBERNU PROGRAMAN

100	Biktimen eskubideak defendatzea.
<p>1. ekinbidea: Berrestea gure konpromisoa ETAre, GALen eta bestelako taldeen biktimei zein polizia-abusuen biktimei dagozkien egia, justizia, memoria, konponketa eta solidaritateko eskubideekin. Hori guztia parekatzerik eta bazterketarik gabe eta edozein terrorismo- edo indarkeria-forma justifikatzeko edo testuinguruan kokatzeko teoria oro ukatuz.</p>	
<p>2. ekinbidea: Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Euskal Legea garatzea eta biktimak eta gizartea bizikidetzarako eta etorkizunerako elkartzeko Batera Proiektua sustatzea.</p>	
<p>3. ekinbidea: Nagusikeria-abusuak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei aitorpena eta konponketa egiteko 12/2016 Legea garatzea.</p>	
<p>4. ekinbidea: Erabat argitu ez diren kasuen errealitatea nabarmentzea. Horiek argitu arte, aitorpen-efortzu gehigarria merezi dute.</p>	
101	Terrorismoko eta indarkeriako iraganaren memoria kritikoa sustatzea.
<p>1. ekinbidea: Memoria kritikorekiko konpromisoa iraganeko edozein terrorismo- edo indarkeria-formaren legitimazio, konpentsazio edo minimizazio ukatuz eta orain edo etorkizunean gertakari berberak errepikatzea irmoki aurkatuz gauzatzen da. Hala, memoria hori bizikidetzara-proiektu sozial bat partekatuz bideratuko da eta terrorismoak eta motibazio politikoko bestelako indarkeria batzuek eragindako bidegabekeria aitortzean oinarrituko da.</p>	
<p>2. ekinbidea: Gogora 2021-24 Jarduketa-plana onestea eta bere dibulgazio-, ikerketa- eta kudeaketa-baliabideak finkatzea.</p>	
<p>3. ekinbidea: Gogoraren egoitzako eta Gernikako Bonbardaketaren Museoko erakusketa-proiektuak zein Gasteizko martxoaren 3aren inguruko erakusketak integratzea.</p>	
<p>4. ekinbidea: Zeharkako irismena eta zentzu etikoa dituen bizikidetzaren inguruko itun sozial bat garatzea, premisa honetan oinarrituko dena: ez zegoen, ez dago eta ez da egongo terrorismoa edo eskubideen beste edozein urraketa justifikatzeko arrazoi politikorik.</p>	
<p>5. ekinbidea: Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onartzea, erreferentziazat hartuz aurreko legegintzaldian aurkeztutako zirriborroa.</p>	
102	Espetxe-politika kudeatzea eta presoak gizarteratzea.
<p>1. ekinbidea: Gure konpromisoa garatzea indibidualizazio, humanitate, eragindako kaltearen konponketa eta birgizarteratzeko lege-printzipioen promozio aktiboan oinarritutako espetxe-politika batekin. Hain zuzen ere, horren ondorioetako bat da presoak bere familia-ingurunearengandik hurbilago dauden espetxeetara lekuz aldatzea babestea, Konstituzioak eta espetxe-legezketasunak orientatutako terminoetan.</p>	
<p>2. ekinbidea: Espetxeen kudeaketa EAera transferitzea aurreikustea, Gernikako Estatutua osorik betez eta garatuz, Gobernu Kontseiluak 2017ko irailean babestutako eta Eusko Jaurlaritzaren Autogobernuaren Ponentziara bidalitako Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko Transferentzien Eguneraketari buruzko 2017ko Txostenak jasotako terminoen barruan eta Espainiako Gobernuak formalki 2020ko otsailaren 20an bidalitako Eusko Jaurlaritzak eskatutako transferentziei buruzko balizko negoziazioetarako kronograma-proposamen orientagarriarekin edo horren adostutako eguneraketekin bat eginez.</p>	
103	Giza eskubideen politiken koordinatzea.
<p>1. ekinbidea: Hezkuntza eta Giza Eskubideen Esparru-programaren bidez, hezkuntzaren eremuko Giza Eskubideen aldeko dibulgazio-ekimenen programa antolatzea.</p>	



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK XII. LEGEGINTZALDIRAKO GOBERNU PROGRAMAN

2. ekinbidea: Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-baliabideen Aieteko "Eskura" Zentroa finkatzea.	
7. ekinbidea: Nazioarteko bakera laguntzeko euskal programa bat garatzea.	
8. ekinbidea: Giza eskubideen defendatzaileen programak babesteko ekimenak mantentzea.	
9. ekinbidea: Etikasi Programaren esparruan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlanean aritzea, giza eskubideen gaineko sentsibilizazioan eta kontzientziazioan.	
10. ekinbidea: Gazteentzako hezkuntza-bisitak antolatzea gerrak edo indarkeriako bestelako esperientzia traumatikoek markatutako Europako hirietara.	
104	Euskal herritarren, erakundeen eta gizarte-eragileen eta antolakuntzen artean partekatutako garapenerako lankidetzako politika irekia garatzea.
1. ekinbidea: Lankidetzarako euskal eragile tradizionalen (GGKE) gaitasunak indartzea eta garapenerako eragile berrien arteko aliantzak bultzatzea, horien papera funtsezkoa delako Euskadiko garapenerako lankidetzaren hedatzeko eta finkatzeko. Helburua da lankidetzaren tekniko eta itunpeko lankidetzako esperientzia berriak garatzea, nazioarteko lankidetzarako babesa eusten duen gizarte-oinarria zabaltzen dutenak. Zentzu horretan, dagoeneko abian dauden ekimen ezagunak (auzolankide) hartuko dira erreferentziatzat.	
105	Garapenerako politiken koherentzia sustatzea gobernu-politiken eremu orokorrean.
1. ekinbidea: Eusko Jaurlaritzaren politiketan giza eskubideetan, genero-berdintasunean eta garapenerako politiken koherentzian oinarritutako zeharkako ikuspegia garatzea. Konpromisoa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Lege berri bat eginez eta onetsiz gauzatuko da. Garapenerako Lankidetzaren V. Plan Zuzentzailea onartuko da ikuspegi hauekin: Afrika indartuz; garapenerako politiken koherentzia erreala baterantzko bultzada irmoa; Eusko Jaurlaritzako sail desberdinak bere jarduketaren eremuekin lotutako lankidetzaren ekimenetan sartzeko ekintza zehatzen sustapena eta erakundeen barneko zein erakunde arteko koordinazioa, bereziki sakonduz Euskal Fondoarekiko aliantza.	
106	Gizarte-eraldaketarako hezkuntza sustatzea.
1. ekinbidea: "HABIAN 2030" Estrategia finkatzea.	
107	Kalitatean, eraginean eta berrikuntzan sakontzea garapenerako lankidetzako politiketan.
1. ekinbidea: Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziaren paper aktiboa indartzea, Europa mailako lankidetzaren deszentralizatuaren berezko ereduaren sustatzailea gisa.	

Bestalde, hurrengo taulan berdintasuna sustatzeko beste konpromiso eta ekimen batzuk zehatzen dira, XII. Legegintzaldirako Gobernu Programan jasota daudenak. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren zuzeneko eskumenekoak ez diren arren, plan honen bidez honako hauek benetan betetzen lagunduko da:



EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO GOBERNU-PROGRAMAKO KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

4	Enpleguaren kalitatearen hobekuntza.
3. ekinbidea. Generoarekin lotutako soldata-arraila murriztera zuzendutako ekimenak indartzea, berdintasun-planen ezarpena gehituz hitzarmen kolektiboetan.	
4. ekinbidea. Bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzea sustatzea, helburu hori erraztera zuzendutako berariazko neurrien bidez, telelana edo lan-ordutegien malgutasuna bultzatuz, betiere enpresa bakoitzaren premiak eta aukerak kontuan hartuz eta familia-errealitate desberdin guztiak barne hartuz.	
7	Zailtasun handiagoak dituzten langabeen laneratzea sustatzea eta enpleguarekiko sarbidea hobetzea.
2. ekinbidea. Saihestea 45 urtetik gorako pertsonen langabezia kronifikatzea, laneratze prestakuntza integralkin eta laguntza pertsonaleko ekintzekin, genero-ikuspegia txertatuz. Arreta berezia emango zaie ezgaitasunen bat duten pertsonari.	
8	Gizarte-elkarrizketan sakontzea eta euskal enpresan eredu parte-hartzaile inklusibo bat sustatzea.
2. ekinbidea. Honakoaren aldeko neurriak hartzea: Egonkortasuna eta enpresa-lehiakortasuna. Soldata-arrailaren murrizketa. Bizitza pertsonal, lan eta familiaren bateratze erantzunkidea. Telelana. Ordutegi-malgutasuna. Lanaren behin-behinekotasunaren murrizketa. Nahi gabeko partzialtasunaren murrizketa. Langileen etengabeko prestakuntzaren sustapena. Laneko segurtasuna eta osasuna lantokian eta "in itinere".	
9	Lan-iruzurraren aurka borrokatzea eta laneko ikuskatzailatza indartzea.
3. ekinbidea. Berariazko ikuskatzailatza-kanpaina bat garatzea, euskal enpresetan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko lan-diskriminazioa deuseztatzeko.	
12	2022-2025 Gizarteratzeko V. Euskal Plana onestea
1. ekinbidea. 2022-2025 Gizarteratzeko V. Euskal Plana onestea erronka berriei erantzuteko. Plan honek zikloaren aurkako neurriak aurreikusiko ditu, krisialdi ekonomikoko aldiaren eraginari aurre egin ahal izateko, arreta berezia jarri gizarteratzearen eremuan genero-ikuspegia txertatzeari.	
19	Espezializazio adimenduna eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan Estrategiko berria 2030eko horizontearekin.
4. ekinbidea. I+G+bren orientazioa indartzea Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatutako gizarte-erronka handien ebazpena: kalitatezko enplegua; osasuna; klima-aldaketa; digitalizazioa eta genero-berdintasunaren zeharkako erronka.	
25	Talentu teknologikoa garatzea eta erakartzea.
3. ekinbidea. Zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikekin (Science Technology Engineering and Mathematics) lotutako bokazioak bultzatzea, hezkuntza zikloaren etapa guztiak barne hartuz eta arreta berezia jarri adar industrietan emakumearen presentzia areagotzeko.	
4. ekinbidea. Emakumearen parte-hartzea eta lidergo babestea eremu industrialarekin eta RIS3 Euskadi estrategiarekin lotutako ikerketa eta berrikuntzako proiektuetan.	
29	Portuen kudeaketa eta euskal landa- eta kostalde-espazioa zaintzea.
7. ekinbidea. Landa-eremuan, enpleguaren sorkuntza eta aukera-berdintasuna sustatzea, arreta berezia jarri emakumeentzako, gazteentzako eta enplegurako sarbide-zailtasunak dituzten kolektiboentzako berariazko programen garapenean.	
36	Euskadi Bultzatu 2050 Hiri-agenda hedatzea eta ezartzea.
2. ekinbidea. Genero-ikuspegia integratzea hiri-garapenaren eremuan.	
37	15 urterako etxebizitzaren aldeko gizarte-ituna lortzea eta legegintzaldiko Etxebizitza Plan Zuzentzaile berria onestea.



EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO GOBERNU-PROGRAMAKO KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

10. ekinbidea. Hobetzea etxebizitzak esleitzeko prozedurak eta horietarako sarbide-eskakizunak, gizarte-profil desberdineko kolektiboen etxebizitzarako sarbidea errazte aldera, bereziki, hauena: gazteak, adinekoak, seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak eta genero-indarkeriaren biktimak, edonola ere, ghettoak sortzea saihestuz.

41 Euskadi - Basque Country norako turistiko segurua, jasangarria eta arduratsua

3. ekinbidea. Genero-berdintasuna bultzatzea sektorean, zehazki, "Enpresa turistikoetako berdintasun-plan" bat garatuz.

55 Bikaintasunerantz aurrera egiten duen eskola inklusiboa, zuzena eta berritzailea lortzea.

3. ekinbidea. Ikaskuntzarako aukera-berdintasuna bultzatzea irakaskuntza guztietan eta hezkuntzarako sarbidean dagoen edozein oreka edo desberdintasun deuseztatzea.

7. ekinbidea. Balio-hezkuntza indartzea, hezkidetzak eta prebentzioa eta eskola-jazarpenaren erradikazioa errazten dituen bizikidetzak positibo baterako.

11. ekinbidea. STEAM bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzea hezkuntza-etapa guztietan, batez ere, nesken eta emakumeen artean, eten teknologikoa eta soldata-arraila murrizteko.

60 Talentua, emakumearen laneratzea eta enpresa berriak sortzeko bultzada sustatzea lanbide-heziketaren ingurunean.

4. ekinbidea. Emakumeak lanbide-heziketa industrialean sartzeko berariazko programa bat garatzea, emakumezkoen enpleguaren kalitatea hobetzeko eta soldata-arraila murrizteko tresna gisa.

66 Zuzentasuna, berdintasuna eta euskara sustatzea euskal unibertsitate-ekosisteman.

2. ekinbidea. Indartzea unibertsitate-prestakuntzan eta ikerketa zientifikoan gizezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun erreala bermatzeko estrategiak, unibertsitatearen eremutik, STEAM Euskadi strategiaren garapenean lagunduz.

69 Ospeko zientzilarien eta ikertzaileen garapena eta erakarpena handitzea

2. ekinbidea. Bokazio zientifikoak eta emakumearen parte-hartzea eta lidergoa sustatzea Euskadiko espezializazio adimentsuko strategiaren ardatzetan zientziarekin lotutako ikerketa-proiektuetan eta ekimenetan.

73 Osasun-ikerketako berezko ekosistema bat garatzea eta osasun-eremuarekin lotutako enpresa-multzoa bultzatzea.

4. ekinbidea. Berariazko laguntza-programa bat abiaraztea, produkzio zientifikoak eta emakumeek osasunikerketan parte hartzea bultzatze aldera.

75 Pertsonen zerbitzura dagoen desberdinkeriarik gabeko osasun hurbilagoa.

3. ekinbidea. Osasunaren Behatoki bat abian jartzea, herritarren osasunari buruzko informazio guztia jardunbide klinikora gehitzea ahalbidetzen duena, genero-ikuspegia kontuan hartuz. Behatoki honek dagoeneko existitzen diren antolakuntza-egiturak eta giza baliabideen egiturak baliatuko ditu eta berariazko sail bat izango du, Euskadin suizidioari buruz dauden errealitateen eta datuen segimendua, analisia eta azterlana egiteko, suizidioa delako hilkortasun-kausarik garrantzitsuenetarikoa bat. Horrekin batera, estrategia suizidioa prebenitzera zuzenduko da.

109 Prebentziozko segurtasuna ezartzea.

3. ekinbidea. Emakumeen aurkako indarkeriaren arrisku-egoeren detekzio eta prebentzio goiztiarrerako programak indartzea.

112 Euskadin sorkuntza eta produkzio kulturalak sustatzea, kulturaren arloko euskal sortzaileak, artistak eta profesionalak babestuz, horien lan-baldintzen hobekuntzan eta profesionalizazioan sakonduz.



EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO GOBERNU-PROGRAMAKO KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

1. ekinbidea. Kulturaren sorkuntzarako eta produkziarako babes publikoa mantentzea eta eguneratzea, bereziki sustatuz euskarazko kultura eta emakumeen ahalduntzea sorkuntzaren eta kulturaren eremuan

7. ekinbidea. Emakumeen ahalduntzea erraztea kultur sorkuntzan eta produkzioan eta imaginario kolektiboaren eraikuntzan egiten duten ekarpenaren garrantzia ikusaraztea, Emakunderekin eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin elkarlanean.

114 Euskadiko ondare kulturala babestea eta hori nabarmentzea bultzatzea.

2. ekinbidea. Ondare ukiezinaren babesa eta nabarmentzea artikulatzea, Ondare Kulturalaren Legea garatuz, arreta berezia jarritz emakumeen legatua ikusaraztean eta nabarmentzean.

122 Jarduera fisikoak eta kirolak berdintasunerako eta gizarteratzeko duten potentziala baliatzea eta euskara sustatzea.

1. ekinbidea. Maila guztietako kirolean eta kirolaren eremuko erabaki- eta ordezkaritza-organoetan emakumeak babesteko eta ikusarazteko programak indartzea, baita emakumezkoen kirol-politiketan Europa mailan erreferentziatzakoa den zentro aurreratu bat abiaraztea ere.

149 Administrazio berritua eta digitala bultzatzea, finkatutako eta prestatutako giza baliabideekin.

2. ekinbidea. Funtzio publikorako sarbide-sistemak eguneratzea eta berrikustea, gardenagoak eta arinagoak izan daitezen, erabateko bermearekin betez berdintasun, merezimendu eta gaitasuneko printzipioak.

150 Baliabide publikoak erantzukizunez kudeatzea.

8. ekinbidea. Gizarte-erantzukizunaren eta kalitatezko enpleguaren zerbitzura dagoen kontratazio publikoa sustatzea, kalitatezko enpleguaren eta gizarteratzearen zein laneratzearen aldeko gizarteklausulak, ingurumen-klausulak eta ordainsari-berdintasunaren aldeko eta soldata-arrailearen aurkako klausulak txertatuz.

Horrenbestez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Gobernu Planarekin lerrotatuta egon behar du, eta sailaren konpromisoak eta ekimenak lortzen lagundu behar du, baita bertako berdintasuneko neurri espezifikoak betetzen ere.



2 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA

[Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak](#) modu koordinatuan eta orokorrean jasotzen ditu euskal agintari publikoek 2018-2021 aldian berdintasunaren alorrean egiten duten jardunean esku hartzeko lerroak eta irizpideak; hori dela eta, [XII. Legealdirako Gobernu Programarekin](#) lerrotatuta dago. Plana Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak prestatu du, erakunde publiko eta gizarte-eragile guztiekin parte hartuta; era berean, plana prestatzeko oinarritzkoa izan da EAEko emakumeen eta feministen elkarteen eta berdintasun-teknikarien partaidetza ere.

Berdintasunerako VII. Planak [Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen \(otsailaren 18ko 4/2005\)](#) 15. artikulua ezarritako legeko aginduari erantzuten dio. Era berean, Legeak xedatzen du jarraibide eta gidalerro horiek garatzean, **Eusko Jaurlaritzako sailek berdintasunaren arloan jarduteko planak eta programak egin eta onetsiko beharko dituztela.**

Alde horretatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren **xedea** botere publikoak gidatzea da, zertarako eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta femeninotasunaren mendekotasuna sostengatzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko; balio horiek gizonak ere mugatzen dituzte, nahiz eta oraindik botere-egoeran egon, patriarkatuak haien bizitzak ere baldintzatzen baititu, unibertsala da eta.

Balio aldaketa hori ezinbestekoa da giza garapen jasangarrirako, eta berekin dakar hainbat balio berri sortzea eta finkatzea, androzentrismoaz, sexismoaz eta matxismoaz zeharkatuta egongo ez direnak; aitzitik, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideak eta herritarren sustapena garatzea eta txertatzea ahalbidetzen duten printzipio filosofiko, etiko eta politikoek zeharkatuko dituzte.

VII. planean ezarritako **printzipioek** adierazten dute zein diren plan horrek inspiratutako eta orientatutako helburuen eta jardueren ikuspegi estrategikoak; **bermeek**, berriz, haien operatibitatea eta inpaktua ziurtatzea bilatzen dute.



XEDEA OINARRI- IRIZPIDEAK ETA BERMEAK

XEDEA

- Balioak aldatzea

OINARRI-IRIZPIDEAK

- Paradigma feminista
- Genero-ikuspegia
- Interseksionalitatea
- Emakumeen ahalduntzea
- Giza garapen jasangarria

BERMEAK:

- Konpromiso politikoa
- Aurrekontu eta giza baliabideak eta baliabide teknikoak
- Gardentasuna eta kontuak ematea
- Emakumeen eta herritarren parte-hartzea eta solaskidetza
- Erakundeen baterako erantzukizuna eta lankidetza

Helburu hori lortzeko, batetik, **Gobernu Onerako** bost programa jasotzen ditu, Legeak ezarritako aginduak jasotzen eta zabaltzen dituztenak eta administrazio publiko osorako orokorrak direnak. Bestetik, **esku hartzeko ardatzak** definitzen ditu berdintasunaren alorrerako, gizarte bidezkoago eta berdinago baterantz egiteko:

GOBERNU ONA

GOBERNU ONA

Berdintasuna txertatzea euskal agintari publikoen antolaketan eta funtzionamenduan eta konpromiso politikoa esplizitu egitea.

EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

Emakumeen ahalduntzea babestea maila pertsonalean zein kolektiboan, sozialean eta politikoan.

ESKU HARTZEKO ARDATZAK

EKONOMIAK ETA ANTOLAMENDUA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO

Politika ekonomikoak eta sozialak konektatzea, ekonomia sendoagoak eta gizarte jasangarri eta berdinoak sortzen laguntzeko.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

Indarkeria prebenitzea, bizirik jarraitzen duten biktimak artatzea eta haiek izandako mina konpontzea.



Esku hartzeko ardatzetan proposatutako ekimenen artean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak Eusko Jaurlaritzako zer sailek gauzatu ditzaketen aipatzen du, euren eskumen-esparrua aintzat hartuta. Ondoren, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak VII. Planaren arabera eskumenak dituen **programak eta helburuak** aurkezten dira.

Gobernu Onerako programak eta neurriak ¹		
I. PROGRAMA: KONPROMI- SO POLITIKOA.	BG.1. Berdintasunaren gaiari buruzko berriazko araudia onartzea eta garatzea	BG1.1 Berdintasunerako berriazko araudia duten erakunde publikoen kopurua handitzea
	BG.2. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea	BG2.1 Berdintasunerako berriazko aurrekontuak dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea BG2.2 Berdintasunera bideratutako aurrekontua handitu duten erakunde publikoen kopurua handitzea
	BG.3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea	BG3.2 Berdintasunerako barneko planak dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea BG3.4 Berdintasunerako plangintza-prozesuak hobetzea BG3.5 Erakunde publikoek egindako berdintasun-planen ezarpen-, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak hobetzea BG3.6 Berdintasunaren arloko kudeaketa publikoan kontuak ematea sustatzea, politiken ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta
	BG.4. Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea	BG4.4 Berdintasuneko teknikarien egoera eta maila profesionala hobetzea BG4.5 Posizio organiko egokia eta beharrezko aurrekontuko zuzkidura duten berdintasunerako unitateen kopurua handitzea
II. PROGRAMA: BERDINTA- SUNERAKO TREBAKUN- TZA.	BG.5 Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere	BG5.1. Beren prestakuntza-planetan berdintasunerako prestakuntza txertatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea BG5.2 Jarduera politiko eta teknikora egokitutako berdintasunerako prestakuntza-ibilbideak diseinatzeko dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea
III. PROGRAMA: GENERO- IKUSPEGIA LAN- PROZEDURE TAN.	BG.6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea	BG6.1 Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea BG6.2 Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea BG6.3 Emakumearen egoerari buruz eta/edo berdintasunaren arloan ikuspegi interseksionala duten berriazko azterlanen kopurua handitzea
	BG.7 Enplegu publikora sartu eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunarekin lotutako edukia txertatzea	BG7.2 Emakumeen ordezkariak txikia denean berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula bat duten enplegu publikoak lortzeko, hornitzeko eta sustatzeko hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea
	BG.8 Komunikazioan berdintasuna txertatzea	BG8.1 Hizkera ez-sexista erabiltzen duten EAEko aldizkari ofizialean argitaratutako dokumentuen ehunekoa handitzea BG8.2 Hizkuntzaren eta gainerako komunikazio-elementuen erabilera ez-sexista egiten duten euskal herri-administrazioen webguneetako edukien kopurua handitzea BG8.3 Euskal erakunde publikoek erabiltzen eta berdintasunaren arloko lorpenak agerian jartzen dituzten komunikazio-euskarrien (memoriak, webguneak...) erabilera handitzea BG8.4 Erakunde publikoek onartutako berdintasunaren arloko oinarriko dokumentuak guztientzako eskuragarri jartzea
	BG.9. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea	BG9.2 Generoaren arabera eraginari buruzko alde aurretiko ebaluazioa duten arauen ehunekoa handitzea BG9.3 Berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen ehunekoa handitzea
	BG. 10 Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea	BG10.1 Aurrekontuak berdintasunaren eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten herri-administrazioen kopurua handitzea BG10.2 Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren herri-administrazioen kopurua handitzea
	BG. 11 Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan	BG11.1 Beren diseinu-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea BG11.2 Berdintasunerako unitate edo eragile batek osatu eta ezarri dituen sektorekako edo zeharkako planen kopurua handitzea
	BG.12. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea	BG12.1 Kontratu eta/edo diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten eta betetzen diren ala ez kontrolatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea BG12.2 Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten kontratuen ehunekoa handitzea

¹ Kolore honetan nabarmentzen dira Emakunde **legegintzaldirako ezarritako lehentasunak** eta gobernu onerako berdintasun-teknikak.



		BG12.3 Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten diru-laguntzen, hitzarmenen eta beken ehunekoak handitzea
IV. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA.	BG.13 Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea	BG13.3 Berdintasunerako sailarteko koordinazio-egitura duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta horretan parte hartzen duten arloen kopurua handitzea BG13.4 Nazioarteko lankidetzako guneak ugaritzea
V. PROGRAMA: PARTE-HARTZE ETA ERAGINA.	BG. 14 Emakumei eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzea pertsona anitzeko zuzendaritza-organoetan	BG14.1 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten kide anitzeko zuzendaritza-organoen ehunekoak handitzea BG14.2 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten epaimahaien edo antzeko organoen ehunekoak handitzea BG14.3 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten hautaketa-epaimahaien ehunekoak handitzea
	BG. 15 Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia txertatzea	BG15.2 Herritarrek parte hartzeko batzordeak eta organoak, beren osieran eta beren funtzio eta helburuen artean berdintasuna txertatzen dutenak, gehitzea BG15.3 Emakumeek politika publikoetan parte hartzeko batzordeen, organoen, plataformen eta beste modu berrien eragina handitzea

1. ARDATZA. Emakumeak ahalduzko programak eta helburuak²

1. PROGRAMA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA.	1.1 Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea	1.1.1 Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenean emakumeek eta feminismoak egindako ekarpenen agerikotasuna eta onarpena handitzea 1.1.2 Gehien feminizatutako bizitzako eremuen gizarte-balioespena handitzea 1.1.3 Emakumeek eta feminismoak bizitzaren eremu guztietan egiten dituzten lorpenak eta ekarpenak gizarte-komunikabideetan hedatzen laguntzen duten programen eta edukien kopurua handitzea 1.1.4 Emakumeek eta feminismoak gizarte eta historian egindako ekarpenak beren hezkuntza-proiektuen edukietan txertatzen dituzten ikastetxeen kopurua handitzea
	1.2 Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea	1.2.1 Genero-desberdinkeriek eta -diskriminazioek beren bizitzetan duten eraginaz jabetzen diren eta trebakuntza-prozesuen bidez beren autoestimuan eta autonomian aldaketak bultzatzen dituzten emakumeen kopurua handitzea 1.2.2 Beren autonomia ekonomikoak norbere erabakiak hartzean duen eragina aintzat hartzen duten emakumeen kopurua handitzea 1.2.3 Beren herritar-eskubideak ezagutzen eta horiek erakitzen parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea
	1.3 Autozainketa eta osasuna sustatzea adin guztietako emakumeengan	1.3.1 Beren burua zaintzeko ohitura duten neskatilen, emakume gazte eta helduen kopurua handitzea (aipatu ohiturak: behar pertsonaletara eta bizitza estilora egokitutako elikadura orekatua izatea, jarduketa fisiko pozgarria egitea, eta arrisku-jarrerak murriztea, besteak beste) 1.3.2 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren oinarritutako harreman eta portaera afektibo-sexualak eta elkarbizitza garatzen dituzten emakumeen kopurua handitzea 1.3.3 Bizitza osasuntsua izateko emakumeen itxaropena handitzea
2. PROGRAMA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA.	2.1. Gizarte- eta herri-mugimenduetatik berdintasuna sustatzea	2.1.1 Emakumeen berdintasuna lortzearen alde lan egiten duten emakume-elkarteen kopurua handitzea 2.1.2 Egitarauetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua handitzea 2.1.3 Munduan emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna eta, bereziki, emakume errefuxiatuen eta migratuen eskubideak sustatzen dituzten emakume-elkarteen eta gizarte-erakundeen kopurua handitzea
	2.2. Emakumeek gizartearen parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan	2.2.3 Gizarte-, sindikatu-, enpresa- eta politika-erakundeetan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea 2.2.4 Gizarte- eta politika-arloan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea, parte hartzeko formula eta/edo gune berrien bidez
	2.3. Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea	2.3.1 Emakumeen presentzia indartzea ordezkaritza eta/edo ardura politiko publikoko postuetan 2.3.2 Sektore pribatuko enpresetako erabaki alorretan eta zuzendaritza postuetan dauden emakumeen kopurua handitzea

² Erakunde guztien eskumeneoak diren helburuak nabarmentzen dira, baita Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak Sailaren eskumen espezifikokoak diren helburuak ere.



		<p>2.3.3 Elkarre-mugimenduko, irabazi asmorik gabeko erakundeetako –kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren arlokoak bame–, erakunde politikoetako, sindikatueta eta enpresa-erakundeetako erabaki postuetan eta guneetan dauden emakumeen kopurua handitzea</p> <p>2.3.4 Erabakiak hartzeko postuetan emakumeen eragina handitzera bideratutako babes- eta trebakuntza-programak ugaritzea</p>
--	--	--

II. ARDATZA: Eskubideak bermatu ahal izateko ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzeko programak eta helburuak ³		
<p>3. PROGRAMA. BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA ONARTZEA.</p>	<p>3.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte balioa dela onartzeko laguntza ematea</p>	<p>3.1.1 Berdintasuna eta gizarte-aurrerapena lotzen dituzten pertsonen kopurua handitzea</p> <p>3.1.2 Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria gizarte-arazo garrantzitsutzat hartzen duten pertsonen kopurua handitzea</p> <p>3.1.3 Emakumeei eta gizonari bizitzako hainbat arlotan rol eta estereotipo bereziak esleitzen dizkieten ume, gazte eta helduen kopurua gubutztea</p> <p>3.1.4 Berdintasuna gizarte-balio modura sustatzearekin konpromisoa duten komunikabideen kopurua handitzea</p> <p>3.1.5 Gizarte-komunikabideetan neskatoen, mutikoen, gazteen eta helduen presentzia orekatua eta aniztasuneko eta estereotipo sexistarik gabeko irudia sustatzen duten programen eta edukien kopurua handitzea bizitza sozialeko arlo guztietan</p>
	<p>3.3. Antolaketa eta enpresan oinarritutako kultura berdintasunaren alde kokatzea</p>	<p>3.3.1 Kultura eta enpresa-praktikak berdintasunerantz aldatzeko ikuspegia txertatzen duten berdintasun-planak dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuaren kopurua handitzea</p> <p>3.3.2 Genero-ikuspegia duten kudeaketa aurreratuko sistemak txertatzen dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuaren kopurua handitzea</p> <p>3.3.3 Berdintasunera bideratutako aldaketarako gogoeta- eta eragin-guneetan parte hartzen duten erakundeen eta enpresen kopurua handitzea</p> <p>3.3.4 Berdintasunera bideratutako aldaketarako gogoeta- eta eragin-guneetan parte hartzen duten erakundeen eta enpresen kopurua handitzea</p>
<p>4. PROGRAMA. AUTONOMIA EKONOMIKOA EMAKUMEENTZAT.</p>	<p>4.1. Lanpostu gehiago eta hobeak sortzea</p>	<p>4.1.7 Generoen arteko desoreka murriztea emakumeek eta gizonen lan ordaindutako eta prestakuntzarako ematen duten denboran, osoko lan zama handitu gabe</p> <p>4.1.8 Emakumeen eta gizonen batez besteko urteko soldata gordinen arteko aldea txikitzea, batez ere alde handiena duten sektoreetan</p>
	<p>4.2. Pobreziaren feminizazioa murriztea</p>	<p>4.2.1 Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen ehuneko murriztea</p> <p>4.2.3 Erakundeek eskainitako erantzunak eta baliabideak (zerbitzu sozialak, ekonomikoak, osasuna, hezkuntza, kultura, enplegua, justizia, segurtasuna eta etxebizitza) pobreziako eta/edo bazterketako arriskuan edo egoeran dauden edota beharizan bereziak dituzten emakumeen beharretara hobeto egokitzea</p>
<p>5. PROGRAMA. ZAINKETA EKONOMIA FEMINISTA.</p>	<p>5.1. Zainketa bizitzaren jasangarritasunerako ezinbesteko baldintza dela sozialki onartzea</p>	<p>5.1.1 Zainketa-lanak naturalki emakumeen ardura direla ukatzen duten eta horiek gizarte-premia bat direla eta horiek hornitzeko gizonak, erakundeak, enpresak eta erakunde publikoak eta gizarte zibila inplikatzeko beharrezkoa dela ulertzen duten gazteen eta helduen kopurua handitzea</p> <p>5.1.2 Eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzen duten eta berdintasunarekin koherenteak diren eta zainketa-lanekiko konpromisoa duten jarrera eta portaerak dituzten gizon gazte eta helduen kopurua handitzea</p> <p>5.1.3 Gaur egun zainketarako dagoen arreta-eredua hazten ari den zainketen askotariko eskarira egokitzea aztertzea, erantzuna hobetzeko xedez, erantzunkidetasuneko eta zainketa-lanen onarpen sozial eta ekonomikoko ikuspegi batetik</p> <p>5.1.4 Eztabaida publikoa sustatzea, zertarako eta, gaur egungo eredu ekonomikoaren bidez, bizitzaren jasangarritasunarekin oinarritutako garapen-eredu bat bultzatzeko</p>
	<p>5.3. Zainketa antolakuntza sozial berri bat babestea, horien homikuntza birbanatzeko</p>	<p>5.3.1 Generoen arteko desoreka murriztea emakumeek eta gizonen ordaindu gabeko zainketa-lanetan ematen duten denboran</p> <p>5.3.2 Haur eta gazteek zainketa-lanak egiten ematen duten denbora handitzea, mutilei arreta berezia jarri</p> <p>5.3.3 Bateratze erantzunkideko neurriei helden dieten gizonen kopurua handitzea</p> <p>5.3.4 Bateratze-neurriei heldeko gizonen eta emakumeen hautematen duten zailtasun-maila murriztea</p> <p>5.3.5 Amatasuneko eta aitatasuneko baimenak parekatzeko aukera sustatzea, berdinar eta besterenezinak izan daitezen</p> <p>5.3.6 Sektore pribatuko enpresen zainketako erantzunkidetasuna handitzea</p>

³ Erakunde guztien eskumenekoak diren helburuak nabarmentzen dira, baita Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumen espezifikoak diren helburuak ere.



		<p>5.3.7 Administrazio eta enpresa publikoek hartutako bateratze erantzunkideko neurrien kopurua handitzea</p> <p>5.3.9 Herritarrei zuzendutako zerbitzu publikoen ordutegi-malgutasuna handitzea</p> <p>5.3.10 Bateratze erantzunkidea eta pertsonen autonomia erraztuko duten hirigintza-plangintzako eta etxebizitzaren, gune publikoen eta garraiobide jasangarrien diseinuko irizpideak aplikatzea</p>
--	--	---

III. ARDATZA: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko Programak eta Helburuak⁴

6. PROGRAMA. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA.	6.1. Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea	<p>6.1.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde dauden eta hori sustatzen duten pertsonak gero eta gehiago izatea, batik bat adingabeen arduratzen direnak, edo adingabeentzako eredu direnak</p> <p>6.1.2 Pertsonak euren sexuaren arabera maila handiagokoak edo txikiagokoak direla adierazten duen irudi eta eduki mediatiko oro kentzea, baita pertsonak sexu-objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edota bultzatzen dutenak ere, hedabideetan agertzearen ondorioz berriz biktimizatzea saihestuz</p> <p>6.1.3 Emakumeen kontrako indarkeriaren informazio-trataera hobetzea, genero-desberdintasuna indarkeria sortzen duen elementu gisa ikus eta aurkez dadin, eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa</p> <p>6.1.4 Desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten edo hura prebenitzeko ahaleginak egiten dituzten eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen duten pertsonen, batez ere mutilen eta gizonen, kopurua areagotzea</p> <p>6.1.5 Emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek desberdinkiarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa</p>
	6.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea	<p>6.2.1 Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako emakumeen kontrako indarkeria-kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko</p> <p>6.2.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haren adierazpenei buruzko jakintza hobetzea</p> <p>6.2.3 Ez zaintzearekin lotutako emakumeen aurkako indarkeria-motak aztertzea, bereziki adineko emakumeetan eta dibertsitate funtzionala dutenetan, hala familian nola erakundeetan</p> <p>6.2.4 Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatzea, indarkeria-mota berrietan arreta berezia jarri</p> <p>6.2.5 Bermatzea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza jasangarria, nahikoa eta eremu eta ardura-maila guztietara egokitutakoa izatea</p> <p>6.2.6 Beren esku-hartzean emakumeen ahalduzko pertsonala eta kaltea konpontzearen kontzeptua txertatzeko behar besteko trebakuntza duten profesionalen kopurua handitzea</p>
	6.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta finkatzea	<p>6.3.1 Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko gazteekin egiten den lana ugaritzea</p> <p>6.3.2 Emakumeen genitalen mutilazioaren eta praktika kulturekin lotutako beste indarkeria-agerpen batzuen (adibidez, nahitaezko ezkontzak, behartutako abortuak eta antzutzek eta uestezko ohorearen izenean egindako delituak) prebentzioa sustatzea</p> <p>6.3.3 Dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren prebentzioa handitzea</p> <p>6.3.4 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prebentzio- eta arreta-programen eta -neurrien eraginkortasuna hobetzea</p>
7. PROGRAMA. KALTEA DETEKTATZEA, ARTATZEA ETA KONPONTZEA.	7.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea	<p>7.1.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarrean era proaktiboan eta ezarritako protokoloen arabera jardungo duten profesionalak gehitzea (hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-sisteman)</p> <p>7.1.2 Esku-hartzeko eremu guztietan indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea, indarkeria psikologikoan arreta berezia jarri</p> <p>7.1.3 Informazio egokia jasotzen duten emakume biktimen kopurua handitzea, arreta integraleko prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren bere itxaropenei egokitutako erabakiak hartu ahal izan ditzaten</p> <p>7.1.4 Edozer motatako indarkeria jasan duten emakumeak, zerbitzuak eta baliabideak goiz erabiltzea erabakitzen dutenak, gehitzea, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko zailtasun handienak dituztenei arreta berezia jarri, haientzako informazioa areagotuz eta eskuragarriago jarri</p>
	7.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduzkoaren esku-hartze horretan nazioarteko	<p>7.2.1 Emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko baliabideen kalitatean, sarbidean eta homikuntzan lurraldeen eta udalen arteko aldeak murriztea, batik bat landa-eremuko udalerrietan</p> <p>7.2.2 EAEn dauden berriazko baliabide eta zerbitzuek gizakien salerosketaren biktime diren artatutako emakume eta haurren kopurua handitzea</p> <p>7.2.3 Beren lantokian sexu-jazarpenaren eta sexuagatik jazarpenaren aurkako prebentzio- eta laguntza-protokoloen estaldura duten pertsonen kopurua areagotzea</p> <p>7.2.4 Arriskuan dauden taldeetan egoteagatik sortutako egoerei erantzuteko behar adinako baliabideak dituzten arreta-zerbitzuak gehitzea, ikuspegi intersektorialetik</p>

⁴ Erakunde guztien eskumenekoak diren helburuak nabarmentzen dira, baita gure Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak Sailaren eskumen espezifikokoak diren helburuak ere.



	estandarrekin bat eginez	<p>7.2.5 Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren seme-alaben berriazko premiak betetzeko baliabideak dituzten arreta-zerbitzuen kopurua handitzea, ikuspegi intersektionaletik</p> <p>7.2.6 Emakumeen aurkako indarkeria biktimen laguntza ekonomiko beharren estaldura bermatzea, haien izapideak arinduz</p> <p>7.2.10 Sexu-indarkeriako kasuen aurreko arreta emateko sistemaren erantzuna hobetzea</p>
	7.3. Norbanakoek eta taldeek kaltearen ordaina jasotzeko duten eskubidea bermatzea	<p>7.3.1 Biktimak eta haien seme-alabak erabat osatzen laguntzeko baliabide publikoak ugaritzea, haietako bakoitzaren eta indarkeriak haiengan dituen ondorioen aniztasuna onartuz</p> <p>7.3.2 Emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespena, biktimenganako errespetua –haien ahotik kontatuz, egia zabaltzen dela bermatzeko– eta bizitakoaren gizarte-onarpenera –berriz biktimizatzea saihestuz– adierazten duten ekintza publikoen kopurua handitzea</p> <p>7.3.3 Kaltea errepika ez dadila bermatzeko formulak aztertzea, arreta eragilean jarriz, emakume guztiak indarkeriarik gabeko bizitza izatea bermatzeko</p> <p>7.3.4 Indarkeriak biktiman izan dituen ondorio guztiak kontuan hartuz, neurriko kalte-ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea onartzea</p>
8. PROGRAMA. ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA.	8.1. EAEn emakumeen aurkako indarkeria jorratzen duten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea	<p>8.1.1 EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dagoen araudia errealitate horri erabat ekiteko behar diren aurrerapen eta erronka berriekin bat etorritzea</p> <p>8.1.2 Indarrean dauden erakunde arteko koordinazioko akordioak emakumeen aurkako indarkeriaren arloko araudiari, teknikari eta gizarte-erakundeetara buruzko aldaketei egokitzea</p> <p>8.1.3 Emakumeen kontrako indarkeria-kasuetarako prebentzio- eta arreta-protokoloak, egoera ezberdinetara egokitututa daudenak: horrelako protokoloen estaldura duten biztanle kopurua gehitzea</p>



3

SAILAREN
ESTRATEGIKOA

PLANGINTZA

3.1. DIAGNOSTIKOAREN DATU GARRANTZITSUAK

3.1.1. GOBERNU ONA

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak gobernu onerako duen konpromiso-mailaren diagnostikoa egiteko orduan, honako auzi hauek aztertu dira programa bakoitzerako (VII. Planean eta haren adierazleetan gobernu onerako aurreikusitako neurriekin korrelatiboak):

I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren konpromiso politikoaren diagnostiko xehatua egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira.

Alderdi garrantzitsuak

- ▶ Une honetan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak **araudi espezifiko bat du berdintasunaren** alorrean:
 - ▶ Aurreko legegintzaldiko gertaera nabarmenena, zalantzarik gabe, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea** onartu izana izan da (1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa). Aldaketa horrek berekin dakar berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak indartzea; administrazioko langileen berdintasunari buruzko prestakuntza bultzatzen du; ikasgeletan hezkidetzeta lantzea indartzen du; babes handiagoa ematen die haur eta nerabeei indarkeria matxistaren aurrean, eta laguntza berri bat sortzen die umezurtz diren seme-alabei, indarkeria matxistaren ondorioz; emakumeen aurkako indarkeria-mota guztien biktimei arreta emateko sistema zabaltzen du; detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzari aurre egiten dio; neurri guztien erdigunean kokatzen ditu biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea; eta, beste aurrerapen askoren artean, biktimen erreparazio-eskubidea aitortzea ere ahalbidetzen du.



- ▶ *Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak, alde batetik, 14.e) artikuluan jasotzen du “Delituen biktimen eskubideak bermatzea eta sustatzea, bat etorri Delituen Biktimen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legean eta haren garapen-araudian ezarritakoarekin, eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei dagokionez”. Bestalde, 16.l) artikuluan esaten du “Genero Indarkeriaren Biktimentzako Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua, ordainketa bakarreko dirulaguntzak eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta eskaintzen dien profesionali aholkua eta laguntza emateko kudeaketa integratua”.*
- ▶ *Ordainketa bakarreko dirulaguntzak agindu honek arautzen ditu: Agindua, 2014ko urriaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena. Aurreko legegintzaldian, araudia aldatu zen, eskaerak ebazteko epea murrizteko, seme-alabak berriz elkartzeko egoeran dauden emakume migratzaileentzako laguntzen zenbatekoa berrikusteko eta adin nagusiko emakumei edo emantzipatutako adingabeei aplikatzeko.*
- ▶ *Pertsona transexualei dagokionez, Sailak pertsona transexualen dokumentu administratiboetarako buruzko arauak garatu zituen abenduaren 22ko 234/2015 Dekretuaren bidez. Dekretu horren helburua da transexualek dokumentazio administratibo egokia izatea sexua berriz esleitzeko prozesuak irauten duen bitartean, gizarte-integrazio hobea izan dezaten laguntzeko, eta hala, sufrimendu- edo diskriminazio-egoerak saihesteko.*

- ▶ **Berdintasunerako politikak garatzeko aurrekontuari** dagokionez, nabarmendu behar da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak berdintasunaren arloko jardueretarako berariazko aurrekontua duela 2018. urtetik, berdintasunaren arloan gauzaturako gastuaz haratago. Ikus daitekeenez, 2021ean bikoiztu egin zen gaur egun mantentzen den aurrekontua:

Kontzeptua	2018	2019	2020	2021	2022
Berdintasun-unitatearen berdintasun-arloko jarduketarako aurrekontua	15.000 €	15.000 €	15.000 €	30.000 €	30.000 €

Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak saihesteko eta arintzeko ahaleginek zati handi bat hartzen diote Sailaren berdintasunaren alorreko aurrekontuari. Genero-indarkeriaren emakume biktimei ordaindu beharreko dirulaguntzen kudeaketarako gastuaren bilakaera honelakoa izan da:

Kontzeptua	2018	2019	2020	2021
Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa	1.009.620 €	1.099.080 €	1.299.509 €	1.673.196 €



- ▶ 2021ean zehar, dirulaguntza horiei esleitutako kopurua 1.300.000 eurokoa izan zen. Horietatik 1.673.196 € erabili ziren. 2022 urterako ezarritako aurrekontua 1.600.000 eurokoa da.
 - ▶ Laguntza horiez gain, Sailak indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko beste zerbitzu eta baliabide batzuk ere baditu: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua, Emakumearen aurkako Indarkeria Koordinatzeko Euskadiko Zentroa, hainbat erakunderekin lankidetzeta-hitzarmenak emakume biktimei babes integrala bermatzeko (emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegietako langileen prestakuntza, instalazioak egokitzea biktimak eta biktimarioak bereizteko, biktimei informazioa, arreta eta laguntza integrala emateko zerbitzuak indartzea (Zurekin programa), besteak beste).
 - ▶ Bestalde, jarduera batzuek gastu esanguratsua dute berdintasunaren arloan. Horien artean: hirugarren sektorean gizarte esku-hartzea bultzatzeko proiektuak laguntzeko dirulaguntzak, honako helburu hauekin: indarkeriaren biktima diren emakumeekin, gizarte-bazterketa egoeran dauden emakumeekin, prostituzioan aritzen diren emakumeekin, eta abarrekin; sexu-orientazioarekin eta genero-identitatearekin lotutako jarduerak (Berdindu, sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaiari buruzko informazio- eta arreta-zerbitzua edo ikasleei gaiari buruzko prestakuntza); kontziliazio erantzukidea sustatzeko eta laguntzeko jarduerak (adingabeen zaintzaileak kontratatzeko dirulaguntzak, besteak beste); espetxe-eredu berrian genero-ikuspegia txertatzeko jarduerak, arreta berezia eskainiz emakumeen premia espezifikoiei eta egoera bereziei; sexu-indarkeriaren biktima diren adingabeen eta haien familiei arreta espezializatua eta integratua bermatzeko jarduerak (Barnahus proiektua); motibazio-politikoaren testuinguruan giza eskubideen urraketan biktimak aintzatesteko eta erreparatzeko jarduerak, besteak, beste.
 - ▶ Beraz, esan behar da berdintasunaren arloko jarduerak garatzeko aurrekontu-esleipen zehatzak daudela, baina, gainera, Sailaren programek badituztela berdintasunaren arloko jarduerak, partida espezifikorik ez dutenak (programaren aurrekontu osoa identifikatzen da), eta, beraz, ezinezkoa da aurrekontu espezifiko orokor bat identifikatzea. Nolanahi ere, legegintzaldi honi begira, berdintasunerako aurrekontua mantendu eta/edo handitu nahi da, eta hura identifikatzen aurrera egin.
- ▶ Sailaren **berdintasunerako plangintzari** dagokionez, nabarmendu behar da orain arte legealdiko 3 plan eta horien urteko planak onartu direla. Urteetan zehar, hobekuntzak egin dira plangintzetan: planifikatu aurretik diagnostikoak egitea, plangintzon garapenean eta jarraipenean Saileko Zuzendaritza guztiek parte hartzea, ekitaldi bakoitzean egindako jarduketei buruzko kontuak ematea eta urteko plangintzetan aurreikusitako aurrekontua sartzea.
 - ▶ Bestalde, nabarmentzekoa da Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeak -Sailaren erakunde autonomoa, – eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak – zuzenbide pribatuko erakunde publikoa – berdintasunaren arloko plangintza propioa dutela gaur egun.



- ▶ Azkenik, **berdintasunerako unitate administratiboak (BUA)** sortzeari eta indartzeari dagokionez, nabarmendu behar da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Berdintasunerako Unitate Administratibo bat duela, lanaldi osorako kontratatua eta berdintasunaren arloan prestakuntza eta esperientzia egiaztatua duena (2008an sortu zen lanpostua). Lanpostu hori Sailaren egiturari dago, «Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko teknikari» izenarekin, eta Zerbitzu Zuzendaritzan dago kokatuta; izan ere, Zuzendaritza horri dagozkie berdintasunaren arloko eskumenak, *Berdintasun, Justizia eta eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 9.f)* artikulua ezartzen duen bezala.
- ▶ Aurreko legegintzaldian, BUAk aholkularitzako eta/edo laguntza metodologikoko dokumentuak prestatu ditu Saileko teknikarientzat eta politikarientzat; gainera, aholkularitza-, koordinazio- eta laguntza metodologikoko bilerak edo saioak egin ditu Saileko politikariek eta teknikariek, bai eta beste erakunde batzuetako eragileekin ere, eta haien helburua izan da Sailaren zereginetan genero-ikuspegiaren integrazioaren inguruan aholkatzea, berrikustea, eta, azken batean, hobetzea.
- ▶ Bestalde, Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea- Saileko erakunde autonomoa da, eta berdintasun-teknikariz osatutako egitura egonkorra du. Gogora Institutuak eta Aukerak elkarrekin ez dute berdintasunerako unitate administratiborik, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak genero-arloko teknikari propioa du. Bestalde, Justizia Administrazioaren Zuzendaritzarako berdintasun-teknikari bat kontratatu da, espetxe-esparruak eta Justizia Administrazioaren II. Berdintasun Planaren garapenez arduratuko dena.

II. PROGRAMA: BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA.

Alderdi garrantzitsuak

- ▶ Saileko **langileak trebatzeko** bide nagusia IVAP da. Urte hauetan, Sailak hainbat prestakuntza-ikastarotan parte hartzea sustatu eta finantzatu du.
- ▶ Zerbitzu Zuzendaritzak, 2014az geroztik, erraztu egin du IVAPek langile guztiei berdintasunaren arloan eskaintzen dizkien prestakuntza-ikastaroetara joatea. Horretarako, ekintza positiboko neurri bat ezarri du, prestakuntza hori prestakuntza-ordutzat ez zenbatzeko (gehienez bi ikastaro pertsona eta urte bakoitzeko).
- ▶ Gainera, Saileko langileek berdintasunaren eta/edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloan erakunde publikoek eta/edo pribatuek antolatutako jardunaldi, mintegi eta antzekoetan parte hartu dute. Berdintasunerako Unitate Administratiboak Saileko langileen artean zabaltu ditu jardura horiek.
- ▶ 2020an, Sailak bere langileen berdintasunaren arloko prestakuntza-beharren diagnostiko bat egin zuen. Diagnostiko horretan egiaztatu zen IVAPek arlo horretan egindako prestakuntza-eskaintzak ez dituela langileen prestakuntza-beharrak asetzen, ez langile guztientzako plaza nahikorik ez dagoelako, ez eskaintako prestakuntza oso orokorra delako eta Sailaren esku-hartze eremuan sakontzen ez duelako.



- ▶ Ildo horretan, berdintasunaren arloko prestakuntza-beharren diagnostikoa oinarritzat hartuta, berdintasunaren arloko prestakuntza-plan bat diseinatu da, Saileko langileen prestakuntza-beharrei erantzuteko. Legegintzaldi honetarako, lehentasuna izango du prestakuntza-plan hau garatzeak, berdintasunaren arloko prestakuntza-eskaintza bat diseinatu eta garatuz, diagnostikoan antzemandako premia horiei erantzuteko.

III. PROGRAMA: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatuta ote dagoen aztertzeko diagnostiko xehatua egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira.

Alderdi garrantzitsuak

- ▶ **Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez**, adierazi behar da, Eusko Jaurlaritzako Sailen Jardueraren Jarraipenari buruzko 2015eko Txostenaren arabera, Emakundez gain, sail guztiek, estatistikak eta azterlanak koordinatzeko eta/edo egiteko eta zabaltzeko arlo edo unitate espezifiko bat izan dutela, gutxienez.
- ▶ Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak berriazko unitate bat du, Sailaren Estatistika Organoa, estatistikak eta azterlanak koordinatu, egin eta zabaltzeko helburua duena. Organo horrek sistematikoki txertatzen du sexuaren aldagaia Sailak sortutako estatistiketan, inkestetan eta datu bilketetan. Gainera, informazioa ustiatzean eta interpretatzean, sexuaren arabera bereizten da. Era berean, erakundeak sexu-aldagaiaren eta askotariko desberdintasun-egoerak (adina, errenta, jatorria, desgaitasuna, eta abar) eragiten dituzten beste aldagai batzuen arteko gurutzaketa egiten du, informazioa ustiatzean eta interpretatzean, betiere garrantzitsua bada eta estatistika-eragiketak aurkezteko txosten orokorren diseinuaren muga barruan badago.
- ▶ *Saileko Estatistika Organoak* ahaleginak egin ditu, neurri handiago edo txikiago batean, genero-adierazleak txertatzeko honako eragiketa estatistiko hauetan:
 - ▶ Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte-ekintzaren Inkesta (GZGEE)
 - ▶ EAEko Gizarte Zerbitzuetarako Gastu Publikoari buruzko Ikerketa (GZGP)
 - ▶ Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika – Gizarte Beharren Inkesta (GZEE-GBI)
 - ▶ Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkesta (PGEI)
 - ▶ Atzerritar Jatorriko Biztanleen Inkesta (EPOE)
 - ▶ Zahartze Aktiboaren Indizea
 - ▶ EAEko familien eta etxeen gizarte-arazoak
- ▶ 2023tik aurrera, berdintasunarekin zuzenean lotutako inkesta berri bat diseinatzen hasiko da: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko inkesta.



- ▶ Azterlanak egiteari dagokionez, hainbat zuzendaritzek emakumeen egoeraren azterketa egin dute, bakoitzak bere eremuan: indarkeriaren biktima diren emakumeak, menpekotasun-egoeran dauden emakumeak, boluntariorizan dauden emakumeak...
- ▶ Sailak, gainera, zenbait Behatoki ditu:
 - ▶ IKUSMIRAK, EAEko gizarte-politiken behatokiak biltzen dituen webgunea (<https://ikusmirak.eus/eu>): Haur eta Nerabeen Behatokia, Familiaren behatokia eta Gizarte Zerbitzuen Behatokia. Behatoki horiek estrategikoak dira gizarte zerbitzuen alorrean proposatutako ekintzen beharrak eta bilakaera ebaluatzeko. Hiru behatokiak eduki-egitura berdina dute: datu, txosten eta argitalpenen banku bat, gaurkotasanari buruzko atal bat eta alor bakoitzari dagozkion dokumentu espezializatuei buruzko atal bat.
 - ▶ Immigrazioaren Euskal Behatokia: webgune propioa du (www.ikuspegi.eus/eus). Immigranteen datuak sexuaren arabera bereizita biltzen dituen baliabide oso erabilgarri bat izateaz gain, dokumentu-funts bat du, eta bertan, behatokiak egindako dokumentuak nahiz alor horren inguruko beste hainbat ikerketa kontsulta daitezke. Dokumentu horietako batzuk EAEn emakume etorkinek duten paperean .eta egoeran zentratzen dira.
- ▶ Berdintasunarekin lotutako edukiak **enplegu publikora sartu eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan** sartzeari dagokionez, aipatu behar da Eusko Jaurlaritzako prozesuen eskumena Funtzio Publikoak - Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak duela. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzukizuna barne-sustapeneko prozesuetara, zerbitzu-eginkizunen hornidurara eta izendapen askeko lanpostuetara mugatzen da. Nabarmentzekoa da 2015etik aurrera hautaketa-prozesu guztiek emakumeen aldeko berdinketa hausteko klausula bat dutela %40tik beherako ordezkaritza duten kidego, eskala, maila eta kategorietan.
 - ▶ Enplegu publikoa eskuratzeko, hornitzeko eta sustatzeko epaimahaien osakeran, emakumeen eta gizonen artean ordezkaritza orekatua egon dadin saiatzen da.
- ▶ **Komunikazioan berdintasuna txertatzeari** dagokionez, nabarmendu behar da, zuzenean sortzen diren dokumentuek eta euskarriek, oro har, bete egiten dutela botere publikoei era guztietako hizkera ez-sexista erabiltzeko eskatzen dien legezko agindua. Aurreko legegintzaldian, ahalegin hori beste pertsona edo erakunde batzuen bidez sortzen diren dokumentu eta euskarrietara hedatu zen, egindako kontratazioetan nahitaez bete beharreko baldintza hori klausula gisa sartuz.
 - ▶ Saileko politikariek eta teknikariek hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko gaikuntza-ikastaroei buruzko informazioa jaso dute, eta pertsona askok gai horri buruzko prestakuntza jaso dute. Gainera, Berdintasun Unitateak aholkularitza eman die hala eskatu duten langileei.
 - ▶ Bestalde, adierazi behar da Sailak bere webgune guztietan islatzen dituela berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak, bai eta oroitzapen-data desberdinetan egindako edukiak ere (martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna; azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna; maiatzaren 17a, Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna; ekainaren 28a, LGTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguna, besteak beste).



► Sailak, erakundearen webguneaz gain, gai espezifikoetarako buruzko beste webgune batzuk ere baditu, berdintasunaren arloko edukiak zabaltzeko plataforma bikainak izan direnak. Horren adibide dira, Berdindu, sexu-eta genero-aniztasunarekin lotutako gaiei buruzko informazio- eta arreta-zerbitzu publikoa (<http://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/berdindu/>), Zeuk Esan, haurrei eta nerabeei laguntzeko telefonoa (<http://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/haurtararako-nerabezararako-laguntza-telefonoa/hasiera/>) edo Euskadiko LGTBI Mugimenduaren Dokumentazio Zentro Birtuala (<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-applgtb/eu/aa38aLGTBWar/index>).

► Azkenik, aurreko legegintzaldian, Sailaren webgunean berdintasunari buruzko atal bat sortu zen, eta hura errazago identifikatzeko logotipo bat diseinatu zen: (<https://www.euskadi.eus/berdintasunaempleo/web01-s2enple/es/>). Bertan, berdintasunaren arloko arau-esparrua, sailetako planak eta programak, berdintasunaren arloko koordinazio-organismoak eta sailak parte hartzen duen lantaldeak eta lankidetzat-taldeak biltzen dira. Gaiari buruzko material eta informazio interesgarriak ere biltzen ditu.

► **Araudian berdintasun-printzipioa txertatzeari** dagokionez, nabarmendu behar da Sailak izapidetutako xedapen orokorren gaineko generoaren araberako eraginari buruzko aurretzako txostenak egitea Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren araudia egiteko espedienteetan erabat txertatutako prozedura dela, eta, beraz, generoaren araberako eraginari buruzko aurretzako txostena egitea nahitaezkoa zen arau guztiek izan dutela.

► Arau horietan sartu diren berdintasunerako neurrien tipologiari dagokionez, nabarmendu behar da genero-ikuspegia txertatzeko neurriak sartu direla, baita berdintasunerako helburuen eta neurrien eraginkortasuna osatzeko edo handitzeko neurriak ere.

► Berdintasunerako Unitate Administratiboak laguntza eta aholkuak eman dizkie zuzendaritzari txostenak egiteko prozesuan, baldin eta laguntza eskatu badute.

► 2010. urteaz geroztik, Sailak Eusko Jaurlaritzaren urteko aurrekontuen generoaren araberako eraginaren aurretzako ebaluazio-txostena egiten laguntzen du, eta Ogasun eta Ekonomia Sailari informazioa ematen dio Sailean emakumeek eta gizonek duten egoerari buruz, bai eta haren esku-hartze eremuari buruz eta bere aurrekontu-programetan berdintasunaren arloan sartzen ziren jardueri buruz ere. 2017tik aurrera, Aurrekontu Orokorrek egiteko Jarraibide Ekonomikoetan eta Arau Teknikoetan adostutakoaren arabera, Sailak aurrekontu-programak genero-ikuspegitik aztertzeko formularioak bete ditu. Halaber, Sailaren jarduera nagusiak zuzentzen zaizkion biztanleriaren diagnostiko sozioekonomikoa, estrategia orokorra eta jarduera garrantzitsuenak (emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzera bideratutako jarduerak, soldata-arrakala murrizteko, eta berdintasunaren arloko beste jarduera garrantzitsu batzuk) jasotzen dituen txostena diseinatu du. Berdintasunerako Unitate Administratiboak prozesu bat koordinatzen du, non saileko zuzendaritza guztiek parte hartzen duten eta lankidetzan aritzen diren, eta formularioak betetzeko aholkuak ematen dituen. Gainera, erakunde autonomoek beren inprimakiak eta txostena aurkezten dituzte.



- ▶ **Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeari** dagokionez, nabarmendu behar da Sailaren aurrekontu-programa guztiek generoaren arabera duten eragina aztertzen dela. Azken ekitaldietako aurrekontuen azterketatik ondorioztatzen da aztertutako programa guztiek garrantzi handia zutela generoari dagokionez, espetxe-erakundeen programak izan ezik, horiek garrantzi ertainekotzat jo baitzuten.
- ▶ Urtez urte, aurrekontu-programen azterketa sakontzen eta hobetzen jarraitzeko ahalegina egiten da, baina, horretarako, ezinbestekotzat jotzen da aurrekontuak egiten parte hartzen duten langileen trebakuntzarekin jarraitzea eta zuzendaritzekin lantaldeak pixkanaka osatzea. Horretarako, garrantzitsua da aurrekontuak egiteko epeak berrikustea, aurrekontuak hobeto azter daitezen eta berdintasuna sustatzeko neurriak sar daitezen.
- ▶ **Sailaren sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia txertatzeari** dagokionez, adierazi behar da, oro har, planetan sexuaren arabera bereizitako datuak jasotzen direla, baita genero-adierazle batzuk ere ebaluazioetan. Hala eta guztiz ere, horiek egiterakoan, ez dute berdintasunaren arloko ezagutzak dituen pertsonarik izaten modu sistematikoan, eta, gainera, berdintasunaren arloko helburuak modu desberdinean jasotzen dituzte.
- ▶ BUAk nolabaiteko aholkularitza eman du planak, estrategiak edo programa sektorialak egiteko prozesu batzuetan genero-ikuspegia txertatzeari buruz. Zehazki, 2021ean, BUAk aholkularitza-txostenak egin dizkie honako hauei: Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2021-2024; Justizia Digitalaren Plana 2021-2026; UDABERRI 2024. Bizikidetzeta, Giza Eskubide eta Aniztasunaren Plana; Altxor 7.0 proiektua, Adinekoen bizi-proiektuak babesteko zerbitzu pilotua; Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren Kulturarteko VI. Plana. 2022-2025.
- ▶ Legegintzaldi honetan, lehentasunez jotzen da genero-ikuspegia txertatzea Gobernu Programan ezarritako plangintza estrategikoetan: Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2021-24; Pertsona Nagusiekiko Gobernanzarako Euskal Estrategia; Justiziaren Plan Estrategikoa; Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana (2018-2022 aldirako) eta Euskal Espetxe Eredua.
- ▶ **Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzeari** dagokionez, Sailak pixkanaka aurrera egin du, baina hainbat mailatan.
- ▶ **Kontratazioari** dagokionez, azpimarratu behar da aurreko legegintzaldiaz geroztik egindako kontratu guztiek berdintasun-irizpideak txertatu dituztela, zehazki, kontratatutako jarduera gauzatzeko baldintza berezien definizioan.
- ▶ **Dirulaguntzei** dagokienez, dirulaguntzak ematerakoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideek genero-ikuspegia txertatu nahi izan dute, eta, horretarako, parekotasuna eskatu dute erabaki-prozesuetan eta/edo dirulaguntzaren onuradunengan. Horretarako, emakumeen presentzia sustatu dute ordezkartza txikia duten eremuetan, proposamenak baloratzeko irizpideetan genero-ikuspegia txertatu dute, eta/edo pertsona edo erakunde eskatzaileek emakumeen eta gizonen berdintasunean izandako ibilbidea edo esperientzia kontuan hartu dute.



► Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagokionez, 2019an eta 2020an 83 dirulaguntza eman ziren, eta horietatik 10ek emakumeen eta gizonen berdintasunerako irizpideak txertatu zituzten. 2021ean, 170 dirulaguntza eman ziren, eta guztietan berdintasun-irizpideak sartu ziren. Desberdintasun kuantitatiboa honako klausula honetan oinarritzen da: *dirulaguntza guztietan ezin izango zaio inolako laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen jarduera bati, ezta sexu-bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko eta juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako aldia*. Era berean, ezin izango dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten enpresek, ez eta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak ezarri dituztela, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legedian ezarritakoaren arabera.

Berdintasunaren irizpidea honako esparru hauetan txertatu da	2019	2020	2021
Dirulaguntzaren xedean	1	1	1
Balorazio- eta/edo esleipen-prozesuetan	1	1	1
Dirulaguntzak eskuratzeko baldintzetan	9	9	162
Proiektua baloratzeko irizpideetan	5	5	5
Pertsona edo erakunde eskatzailearen balorazio-irizpideetan	2	2	2
Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko baldintza bereziak zehazterakoan	2	2	2
Bestelakoak	2	2	2
GUZTIRA	22	22	175

- **Hitzarmenak:** Hitzarmenei dagokienez, 2019an eta 2020an Sailak 7 hitzarmen sinatu zituen urtero, eta horietatik bakar batek ere ez zuen berdintasun-klausularik jasotzen. 2021ean, Sailak 34 hitzarmen formalizatu ditu, eta horietatik 3k berdintasun-klausulak txertatu dituzte, 2k hitzarmenaren xedean eta 2k hitzartutako jarduera gauzatzeko baldintza berezien definizioan.
- Legegintzaldi honi begira, beharrezkotzat jotzen da kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan sartutako berdintasun-klausulen kopurua handitzea, baina, batez ere, berdintasun-klausulek kontratu, dirulaguntza eta hitzarmen horietan duten eraginaren jarraipena eta egiaztapena ahalbidetzeko jarduerak garatzea.

IV. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA.

Berdintasun, Justizia ta Gizarte Politiketako Sailaren koordinazio- eta lankidetzeta-prozesuen diagnostiko xehatua egin da, berdintasun-politikak ezartzeko honako auzi hauek aztertuta:



Alderdi garrantzitsuak

- **Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzaren indartzeari** dagokionez, nabarmentzekoa da Sailak, XII. Legealdian, berdintasunaren alorreko erakundearteko koordinazio politiko eta teknikorako egitura hauetan hartzen duela parte:

EGITURA	KARGUA/POSTUA
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sailarteko batzordea	Gizarte Politiketako Sailburuordea
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sailarteko lantalde teknikoa	Berdintasunerako Unitate Administratiboa- Zerbitzu Zuzendaritza
Emakume eta gizonen berdintasunerako erakundearteko batzordea	Gizarte Politiketako Sailburuordea
Emakume eta gizonen berdintasunerako erakundearteko lantalde teknikoa	Berdintasunerako Unitate Administratiboa- Zerbitzu Zuzendaritza
Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobe egiteko erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea	Gizarte Politiketako Sailburuordea Justiziako Sailburuordea
Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobe egiteko erakundearen arteko II. Akordioaren lantalde teknikoa	Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikariak Berdintasunerako Unitate Administratiboa- Zerbitzu Zuzendaritza
Emakunderen Zuzendaritza Batzordea	Gizarte Politiketako Sailburuordea Justiziako Sailburuordea

- Bestalde, Saileko Berdintasunerako Unitate Administratiboak hainbat lantaldetan parte hartu du: Erakundearteko Talde Teknikoan, Sailarteko Talde Teknikoan eta Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobe egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren Talde Teknikoan.
- Sailari dagokionez, azpimarratzekoa da Saileko Talde Teknikoa (STT) dagoela, Berdintasunerako Unitate Administratiboak koordinatzen duena eta Saila osatzen duten zuzendaritza bakoitzeko teknikariek parte hartzen dute. Talde horren helburua da Saileko zuzendaritzek berdintasunaren arloan garatu behar dituzten ekintzak koordinatzea eta berdintasun-politikak garatzeko prozesuaren fase bakoitzean laguntzea, hala nola plangintzan, gauzatzean, ebaluazioan eta komunikazioan.
- Azkenik, Berdintasunerako Unitate Administratiboak soldata-arrakala murrizteko estrategia ezartzeko taldean parte hartzen du, beste zuzendaritza batzuetako eta Emakundeko langileekin batera.

V. PROGRAMA: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren zuzendaritza-organoetan eta partaidetza-espazioetan emakumeen eta gizonen partaidetza-prozesuari eta intzidentziari buruzko diagnostiko xehatua egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira:



Alderdi garrantzitsuak

► **Kide anitzeko zuzendaritzako-organoetan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua sustatzeari** dagokionez, nabarmendu behar da, *Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 4.3. artikuluan* ezartzen duen bezala, Zuzendaritza Kontseilu bat dago, sailburua buru duena, eta Sailaren politika orokorraren plangintzan eta koordinazioan laguntzeko eginkizuna du. Kontseilu hori honako hauek osatuko dute: Kabineteko zuzendariak, Komunikazioko zuzendariak, Zerbitzu zuzendariak, sailburuordeak, Emakundeko zuzendariak eta sailburuak eta, landu beharreko gaien arabera, sailburuak zehazten dituen pertsonak. Gaur egun, Zuzendaritza Kontseilua 6 emakumek eta 2 gizonek osatzen dute.

- Parte-hartzeko eta kontsultarako eremuetan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez, aipatu nahi dugu Sailak hari atxikita edo lotuta dauden organo hauek ere dituela:
 - Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa
 - Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua
 - Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia
 - Familia Bitartekaritzako Aholku Batzordea
 - Nazioarteko Adopzioarako Batzorde Teknikoa
 - Boluntariotzaren Euskal Kontseilua
 - Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseilua
 - Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala
 - Haurren eta Nerabeen Behatokia
 - Familien Euskal Behatokia
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorकिन Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa
 - Familiaren Euskal Kontseilua
 - Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia
 - Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Kontseilua
 - Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Batzorde Teknikoa
 - Eusko Jaurlaritzaren eta Idazkaritza Judizialaren arteko lankidetzako-organoa
 - Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak
 - Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea
 - Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordea
 - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua.
 - Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua.
 - Bake eta Bizikidetzako Planaren Aholku Batzordea.



- ▶ Azkenik, azpimarratu behar da Euskadiko Emakume Ijitoen Batzordea Sailaren mendeko organo aholku-emaileetako bat dela. Haren egitekoa da eraldaketa sustatzea emakume ijitoak eta haien jakintzak ikusaraziz eta baloratu, haien kultura ahaztu gabe ahalduzko ekintzak eta proiektuak sortuz eta ijito-herrian aldaketa positiboak sortuz. Beraz, Batzorde honek herritarren partaidetzarako organo gisa jarduten du, berdintasunari berriaz eskainia.

3.1.2 ESKU HARTZEKO ARDATZAK

GIZARTE ZERBITZUEN AZPIEREMUA

ALDERDI AIPAGARRIAK

» **Emakumeen kontrako indarkeriari** dagokionez, *“Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eragina. Datuen aurrerapena. EAE, 2021.”* txosteneko datuen arabera, 2021. urtean 5.430 biktimizazio gertatu ziren. Biktimizazioetat jotzen dira emakumeek aldi luze batean ez-zilegitasun penala (mehatxuak, lesioak, etab.) jasan duten aldiak. Zifra horrek esan nahi du 2,92ko igoera izan dela 2020an erregistratutako biktimizazioekin alderatuta. Emakumeen aurkako biktimizazioak, hamarretik zazpitan (% 71,3), egungo bikotekidearen edo biktimaren bikotekide ohiaren aldetik izan dira. Familia barruko indarkeria bigarren postuan dago, eta % 20,3an familiako gizonen batek eragiten du (aitak, semeak edo beste senitartekoren batek). Gainerako kasuen % 8,3a emakumeen sexu-askatasunaren aurkako kasuak izan ziren. 2020. urtearekin alderatuta, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasuak 1,5 puntu igo dira; familia barruko indarkeria-kasuak 0,81 puntu jaitsi dira; sexu-askatasunaren aurkako biktimizazioak, berriz, 29,97 puntu igo dira.

» 2021eko datuak adin-taldeen arabera bereizita aztertuta, ikus daiteke emakume adingabeen artean (18 urtera arte) sexu-askatasunaren aurkako delituak izan direla nagusi, guztizkoaren % 44,3. 18 eta 30 urte bitarteko taldean ere sexu-askatasunaren aurkako delituak dira nagusi (33,3), baina bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria % 31,3ra iristen da. 31 eta 50 urte bitarteko emakumeek salatzen dute bikotekidea edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasuen % 56,7an. 50 urtetik gorako emakumeen % 37,1 familia barruko indarkeriaren biktima da.

» Emakumeen aurkako indarkeriak EAEn izan duen eraginari buruzko 2020ko datuen arabera, erasotzaileen adinari dagokionez, segmentu nagusia 31 eta 50 urte artekoa da (kasuen ia % 54,9 biltzen dira). Proporzio txikiagoan bada ere, kezkarria da jakitea erasoan % 27,8, 30 urtetik beherako gizonezko gazteek egin zituztela; adingabeak erasotzaileen % 3,5 dira.

» Indarkeria horren adierazpen erradikalena eta dramatikoena da hildakoak eragiten dituenak. 2003ko azarotik 2022ko irailera arte 36 emakume hil dituzte EAEn, Berdintasun Ministerioaren datuen arabera.

» Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak baliabide ugari ditu indarkeria matxista jasaten duten emakumeen egoera hobetzeko. Horien artean dago genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestazio ekonomikoa,



bikotekideak edo bikotekide ohiak egindakoa, tratu txarren egoera horretatik ateratzeko eta haien independentzia ekonomikoa nahiz gizarteratzea errazteko. Azken urteetan, laguntza jaso duten emakumeen kopurua honako hau izan da:

URTEA	EMAKUME ONURADUNAK
2018	170
2019	195
2020	236
2021	290

» Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako Informazio- eta Arreta Zerbitzuari (SATEVI) dagokionez, nabarmendu behar da 2022ko lehen sei hilabeteetan 1.427 arreta-eskaera jaso direla guztira, % 90 bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriarekin lotuta. Zerbitzuak egindako esku-hartzearen esparruan, biktimei zuzeneko arreta emateaz gain, emakumeen aurkako indarkeria-egoerei aurre egiteko laguntza-lana egiten da hurbileko pertsoneri eta profesionaleri zuzenduta, bai kasu jakin batekin lotuta, bai biktimekin harreman zuzenik izan gabe, baina eremu horri buruzko informazioa eskatuz.

» Bestalde, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikulua honako hau ezartzen du: kapitulu honetan araututako eskubideak aitortzea dakarten genero-indarkeriako egoerak egiaztatze, genero-indarkeriako delitu batengatik kondena-epaia, babes-agindua edo biktimaren aldeko kautelazko neurri bat adosten duen beste edozein ebazpen judizial erabiliko da, edo, bestela, demandatzailea genero-indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela adierazten duen Ministerio Fiskalaren txostena. Genero-indarkeriaren egoerak egiaztatu ahal izango dira, halaber, gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo Administrazio Publiko eskudunaren genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-zerbitzuen txostenaren bidez, edo beste edozein tituluren bidez, betiere eskubide eta baliabide bakoitzerako irispidea arautzen duten arau-xedapen sektorialetan hala aurreikusita badago. Ildo horretan, Estatu Ituna garatzeko premia-zerbitzuen neurriei buruzko 9/2015 Errege Lege Dekretuak zabaldu egin ditu genero-indarkeriako egoerak egiaztatze mekanismoak, gizarte- eta lan-eskubideen, Gizarte Segurantzaren eta gizarteratze- eta laneratze-programen esparruan, eta baliozkotasuna eman die gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen eta harrera-zerbitzuen txostenei.

» Helburu horrekin, Gobernuak eta autonomia-erkidegoek eta hiri autonomoek, 2019ko apirilaren 3an egindako Berdintasunerako Konferentzia Sektorialean, **genero-indarkeriako egoera egiaztatze** eredu komuna onartu zuten, bai eta genero-indarkeriako egoera egiaztatzen duten gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo harrera-zerbitzuen harremana ere. 2021aren amaieran, Genero Indarkeriaren aurkako Berdintasunerako Estatu Idazkaritzaren 2021eko abenduaren 2ko Ebazpenaren bidez, Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren 2021eko azaroaren 11ko Erabakia argitaratu zen. Bertan, genero-indarkeriaren egoerak egiaztatze oinarritzko prozedura edo gutxieneko jarraibide komunak jasotzen dira, ondorio administratiboekin, abenduaren 28ko 1/2004



Lege Organikoaren 1. artikulua arabera, lege horren 23. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Akordio horren bidez, aurrera egiten da, eta hobetu egiten da genero-indarkeriaren biktimek Estatuko araudian aitortutako eskubideak eta prestazioak eskuratzeko aukera; izan ere, eskubide eta prestazio horiek eskuratzeko erraztasunak ematen zaizkie, salaketa jarri beharrik gabe, eta, horrela, bete egiten dira Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta horien aurka borrokatzeari buruzkoa, eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna. Zehazki, administrazio-akreditazioak Estatuko lurralde osoan du eraginkortasuna, eta erraztu egiten du genero-indarkeriaren biktimek 1/2004 Lege Organikoaren II. kapituluari («Lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzaren prestazioak») araututako eskubideak eta Estatuko araudi aplikagarrian aitortutako eskubide, baliabide eta zerbitzu guztiak eskura izatea, baldin eta araudi sektorialeko xedapenek horietako bakoitzerako sarbidea aurreikusten eta arautzen badute, eta eskatutako betekizunen artean sartzen bada genero-indarkeriaren egoera egiaztatzea gizarte-zerbitzuek, zerbitzu espezializatuek edo genero-indarkeriaren biktimentzako Administrazio Publiko eskudunaren harrera-zerbitzuek egindako txostenaren bidez (administrazio-egiaztapena).

» 2022ko lehen seihilekoan, aurreko akordioa dela-eta, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak berriazko prozedura bat ezarri du egiaztapen hori emateko. Zehazki, emakumeen akreditazioaren eskaerak bideratzen dira gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo administrazio publiko eskudunaren genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-zerbitzuen bidez, baldin eta aldeko balioespen-txostena egin badute, laguntza jaso duten emakumeek aldeztatik hala eskatu dieten kasuetan. Horretarako, berriazko prozedura bat ezarri da Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa, **Genero-indarkeriaren egoeraren administrazio-egiaztapena** izenekoa.

Azken bi urteetan emandako egiaztagirien datuak:

	2020	2021
Araba	23	19
Bizkaia	72	86
Gipuzkoa	30	39
Total	125	144

» Azkenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 57.4 artikulua honako hau ezartzen du: *“Eskuragarri dituzten prestazio ekonomiko orokorrez gainera, zeinetarako lehentasunezko kolektibotzat hartuko baitira, euskal administrazio publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei ondoren zehazten diren laguntza ekonomiko espezifikoei sarbidea bermatu behar diete; horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko EAEko Sistemari buruzko arauak eta prestazioak egokitu beharko dituzte, behar izanez gero”*: **b) Laguntza ekonomikoa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei seme-alaba umezurtzentzat**. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza laguntza hori arautuko duen araudia prestatzen ari da.

» **Biztanleriari** dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2017an emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %35,4k 55 urte edo gehiago zituen, %21,7k 65 urteko atalasea gainditu zuen



eta biztanleria zahartua, hau da, 80 urtetik gorakoa, biztanleria osoaren %7,2 zen eta 65 urtetik gorako biztanleriaren ia herena. 65 urtetik gorakoen %57,6 emakumeak ziren, eta ehuneko hori %64,8ra igotzen zen laurogei urtetik gorakoen kasuan. Gainera, INEren kalkuluen arabera, Euskadin 65 urtetik gorako pertsonen %32 egongo da 2031n. Bestalde, kalkulu horien arabera, EAeko biztanleriaren ia erdiak 55 urte baino gehiago izango ditu, eta Euskadiko 80 urte eta gehiagoko pertsonak biztanleria osoaren ia %10 eta adineko biztanleriaren %43 osatuko dute.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak Adinekoekiko Gobernantzarako Euskal Estrategia 2019-2022 prestatu zuen. Estrategia horren helburua partaidetza publiko sozialeko eredu bat definitzea zen, biztanleriaren egiturarekin eta zahartzen ari diren pertsonen eginkizunarekin bat etorriko zena, bai politika publikoen esparruan, bai pribatutasunaren esparruan. Parte-hartze publiko sozialaren eredu hori Agenda Nagusi erudian gauzatzen da. Eredu horren helburua da zahartzen ari diren pertsonen espazio bat eskaintzea eragiten dieten arazoaren definizioa partekatze eta administrazioarekin batera diseinatutako konponbideak eta proposamenak bilatzen laguntzeko, balio publiko-soziala emanez. Arduradun teknikoekin, politikoen eta gizarte zibilarekin aktiboki parte hartzeko espazioak eskaini nahi dira, haien bizi-kalitatea hobetzera bideratutako zerbitzuak eta politikak lankidetzan diseinatzeko.

Gaur egun, 2021-2024 aldirako “Adinekoekiko Euskal Estrategia” berria diseinatzeko ari gara, zahartze aktiboa sustatzeko eta bizitza osoa lortzeko.

» **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari** dagokionez (EHSS), Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokiaren 2019ko Barometroaren Txostenean adierazten denez, EHSS 3.938 erakunde osatzen dute (2.246 Bizkaian, 1.130 Gipuzkoan eta 562 Araban), eta horrek esan nahi du 1,8 erakunde daudela Euskadiko 1.000 biztanleko. Erakunde horiek 38.525 langile inguru dituzte, eta 158.599 boluntarioren parte-hartze soziala bideratzen dute. Oso sektore heterogeneoa eta atomizatua da. Lurraldean bereziki errotuta dauden erakunde txiki asko daude, eta gai dira beren erantzunak lurraldearen ezaugarri espezifikotara egokitzeko, partaidetza komunitarioa aktibatze eta abar. Hainbat eremutatik jarduten dute, hala nola soziotransbertsaletik edo zibikotik (% 36), gizarte-zerbitzuetatik (% 23,3), garapenerako nazioarteko lankidetzatik (% 13,3), hezkuntzatik eta aisialditik (% 12,1), osasunetik (% 9,3), enplegutik (% 3,8) eta beste batzuetatik (% 1,6).

Erakundeen % 22,6k bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen ditu, % 15,1ek desgaitasuna duten pertsonak, % 5,4k babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak eta % 3,6k mendetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak. Gainerakoen jardueraren hartzaille nagusiak beste ahultasun- edo desberdintasun-egoera batzuei aurre egiten dieten pertsonak dira.

Kolektibo nagusizat askotariko hartzailleak dituzte, eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Haurrak eta nerabeak (kontsultatutako erakundeen % 17,8ko kolektibo nagusia da);
- Adinekoak (kolektibo nagusia: % 12,4);
- Desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak (kolektibo nagusia: % 11,8);



- Pobrezia-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (kolektibo nagusia: % 11,8);

- Emakumeak (kolektibo nagusia: % 11,5).

Kolektibo nagusia ez ezik, erakunde batek arreta eman diezaiekeen guztiak ere kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu erakundeen erdiek emakumeak eta gazteak artatzen dituztela neurri handiagoan edo txikiagoan. Haur eta nerabeekin lan egiten dutenak guztizkoaren % 42,2 dira, eta oso ugariak dira adinekoak (% 35,8), etorkinak (% 34,4) edo bazterketa-arriskuan daudenak (% 34,4) artatzen dituztenak.

Ditugun datuak sexuaren arabera bereizita daude, eta EHSSko erakundeetan lan egiten duten pertsonen buruzkoak dira, boluntarioak edo ordaindutako langileak izan. Erakunde bateko boluntarioen kopurua 10 eta 50 pertsona artekoa izatea da ohikoena. Ohikoena 10 boluntario izatea bada ere, batez bestekoa 37 boluntario ingurukoa da, eta horietatik % 29,5 emakumeak dira. Ordaindutako pertsonen % 70,5 emakumeak dira, eta ordaindutako langileen % 32 lanaldi partzialerako kontratatuta daude, eta emakumeek 10 kontratu partzialetatik 8 dituzte. Langileen % 12 inguruk kargu edo erantzukizun ordainduren bat hartzen du bere gain erakundeetan. Tasa hori zertxobait altuagoa da gizonen artean (% 12,5) emakumeen artean baino (% 11,9).

Sailak dirulaguntzen programa bat du hirugarren sektoreko erakundeentzat, esku-hartze sozialaren eremuko jardueretarako, hau da, pertsonen, familien eta taldeen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa babestu eta sustatzera bideratuak, bereziki honako gai hauetan kokatzen direnean: gizarte-zerbitzuak; gizarteratzea; familien laguntza, sustapena eta babesa; haurren eta nerabeen arreta eta babesa; etorkinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasuna, gai juridikoetan izan ezik; adinekoen arreta eta babesa; mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta babesa, eta, oro har, desgaitasun-egoeran dauden arreta eta babesa; askatasun eta aniztasun afektibo sexuala.

2021ean, hurrengo proiektuak finantzatu ziren, honela banatuta:

- Esku-hartze sozialeko jarduerak pertsona, familia, talde eta komunitateekin, 132 erakunderen 247 proiektu.

- Esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jarduerak, 72 erakunderen 89 proiektu.

- Gizartean esku hartzeko ezagutza kudeatzeko jarduerak, 71 erakunderen 78 proiektu.

» Bestalde, Euskadiko **boluntariotzari** dagokionez, EAeko boluntariotzari eta gizartean parte hartzeko beste modu batzuei buruzko 2017ko txostenetik ateratako datuen arabera, EAeko biztanleriaren % 13,4 hirugarren sektoreko erakunderen batean aritu da boluntariotzan azken urtean, hau da, 241.907 pertsona inguru. Boluntarioen sexua kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu erakunde horietan boluntariotzan aritzen diren gizonen eta emakumeen proportzioa oso antzekoa dela (%13,6 eta %13,1, hurrenez hurren). Azterlan hori oinarritzat hartuta, Sailak azterlan bat egin zuen EAeko emakumeek boluntariotzan eta gizartean parte hartzeko beste modu batzuetan duten parte-hartzeari buruz, genero-ikuspegitik. Errealitateari ekarpen bat egiten dion azterlan bat, boluntariotzan parte hartzen duten emakumeek beraiek emandako alde kualitatibo bat.



Hirugarren sektoreko erakundeetan, boluntariotzaren batez besteko adina 44 urtekoa da. Gizonen presentzia nabarmenagoa da 40 urtetik aurrera, eta emakumeena 18 eta 29 urte bitartean. Bi sexuetan partaidetza txikiena duen adin-tartea 30-39 urtekoa da. Lan-egoerari dagokionez, emakume langabeek eta ikasleek gizonen presentzia bikoizten dute. Pertsona landunen kasuan, gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa da. Gaur egun lan ordaindua dutenen lanaldi motari dagokionez, gehienak dira lanaldi osoa dutenak, nahiz eta emakumeek baino gehiago parte hartzen duten. Aitzitik, lanaldi partziala duten emakumeek ia hirukoiztu egiten dituzte gizonak.

Boluntario gehienak, emakumeak zein gizonak, gurasoekin bizi dira, eta horren ondoren, seme-alabarik gabeko bikotekidearekin bizi direnak daude. Sexuen artean alde txiki bat dago familia-erantzukizunekin bizi diren ala ez kontuan hartuta. Nabarmenezkoa da bakarrik bizi diren emakumeen proportzioa handiagoa dela gizonezkoena baino. Emakume boluntarioen lan-eremuari edo erakunde-motari dagokionez, azterlan honetarako egindako boluntarioei buruzko inkestatik ateratako datuak aztertuz gero, ondoriozta daiteke Gizarte Ekintza, Aisialdia eta Denbora Librea eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren direla ugarienak, Kirola eta Ingurumena eta Animalien Babesa ez bezala, horietan ia ez baitago emakumerik.

Motibazioak aztertu ondoren, interesgarria da emakumeek erakunde horietan betetzen dituzten funtzio edo zeregin espezifikoak ezagutzea. Emakumeek, batez beste, 7 ordu ematen dituzte astean esku-hartze zuzeneko edo kudeaketa- eta administrazio-zereginekin konbinatuta. Sexuen arteko alderik handiena zuzeneko esku-hartzearen aldean dago, horietan gehienak emakumeak baitira. Aitzitik, ia ez dute egiten funtsean gizonak betetzen dituzten mantentze-lanik. Emakumeek eta gizonak boluntariotzaren emandako batez besteko denbora antzekoa da. Bestalde, zenbat eta ordu gehiago inbertitu, emakumeen presentzia ere handiagoa da, batez ere astean 20 ordu baino gehiago ematen dituztenen artean.

Boluntariotzaren aritzeko edo ez aritzeko giltzarritzat jotzen dituzten oztipo edo faktoreei dagokienez, emakumeek oro har denborarik ezari erreparatzen diote. Ildo horretan, eta datu horiek sexuaren arabera bereizita, ikusten da emakumeek antzeko parte-hartze maila dutela hirugarren sektoreko erakundeetan, baina erakunde erlijiosoetan nabarmen direla, eta alderdi politikoetako parte-hartzearen ere. Enpresa- eta sindikatu-munduekin lotutako eremuetan, gizonak emakumeen bikoitza dira.

2020ko abenduan, egoera hau zen Euskadin:

Zentroa	Zigortua		Prebentzio- dun zigortuak		Segurtasun - neurria		Prebentiboak		GUZTIRA
Araba	561	83	9	1	4	0	62	6	726
Gipuzkoa	258	25	8	0	0	0	49	4	344
Bizkaia	256	13	7	0	0	0	58	0	334

Prebentziozko espetxealdian dagoen biztanleria orokorraren ehunekoa % 13,7 da. Prebentzioagatik askatasunaz gabetutako emakumeen proportzioa % 8 da. Saiklapenari dagokionez, zigortutako biztanleria osotik – saiklatu daitekeena, alegia – % 33k, gutxi gorabehera, kanpora irteteko erregimen erregularra du, 3. mailako modalitateen eta RPko 100.2 artikulua malgutasun-erregimenaren arabera. Modalitate horietan emakumeen ehunekoa txikiagoa da, % 28. Kontrol telematikoa da modalitate ohikoena.

Zentruen arabera, hauek dira datuak:

- Bizkaiko PK: 334 preso; horietatik % 60k irteera erregularrak dituzte. Emakume guztiak hirugarren graduan saiklatuta daude, establezimenduak ez baitu erregimen arrunteko emakumeen sailik.
- Gipuzkoako PK: 344 preso; horietatik 100 inguru erregimen irekian daude, antzeko egoeran. Erdiak erregimen irekikoak dira.
- Arabako PK: 726 preso; horietatik % 14 erregimen irekian daude, eta 2.a irteerekin. Emakumeen ehunekoa pixka bat txikiagoa da, % 13.

Kontuan izan behar da 2. graduan saiklatutako Gipuzkoako eta Bizkaiko preso gehienak Arabako JEra lekualdatzen direla, eta horiek 3. gradura aurreratzen direnean, jatorrizko zentroetara itzultzen direla; beraz, hiru zentroetako bakoitzean erregimen irekian dauden espetxeratuen ehunekoak ez du inolako esanahirik zentroa saikatzeko irizpideei dagokienez.

Azken urteotan murriztu egin da espetxeetako ospitaleratzeen kopurua. Murrizketa horrek hainbat arrazoi ditu. Horietako bat da kriminalitateak, oro har, behera egin duela, baina garrantzi handia du, halaber, Erkidegoko zigorrak edo zigor alternatiboak deiturikoak orokortzeak, hala nola komunitatearen aldeko lanak edo tratamendu-programak egitea.



Espetxeetako langileei dagokienez, EAeko espetxeetako zuzendaritza-postuen % 25 emakumeek betetzen dituzte. Espetxeko zuzendari-postuen bi herenak emakumeek betetzen dituzte.

Aurreko atalean azaldutako datu bereziki erakusten dutenez, espetxeetako biztanle gehienak gizonak dira: % 92 eta % 8, hurrenez hurren. Ehuneko txikia, baina Europako beste herrialde batzuetako espetxe-sistemetan dagoena baino pixka bat handiagoa.

Zigortutako emakumeen ehuneko askoz handiagoa da erregimen irekietan, erdi-askatasunean edo errespetu-moduluetan zigorra betetzen duten gizonena baino. Espetxeetan emakume gutxi egotea aitzakia izan da emakume horiek ikusezin bihurtzeko. Oro har eta, bereziki, sailkapen-maila mugatzaileenetan zigortutako emakume gutxiago egoteak ez du esan nahi emakumeek espetxe-sisteman duten egoerak genero-ikuspegitik arreta behar ez duenik eskatzen diren premia zehatzei erantzuteko. Azterlan batzuek azpimarratzen dute askatasunaz gabetutako emakumeen gaineko kondena bikoitza dagoela, legea hausteagatik ezarritako zigorrari, genero-arauak hausteagatik estigma gehitzen baitaio.

Familia- eta gizarte-loturak galtzeak eragin handiagoa izan ohi du emakumeengan, beharbada genero-rolak barneratzeagatik, erru, lotsa eta umiliazio sentimendu handiagoa sortzen baitie.

Zigorra betetzeak familia-harremanean eta mendeko senideen zaintzan eta arretan duen eragina, bereziki seme-alabena, askoz ere handiagoa da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino, eta eragina du tratamenduan eta errehabilitazioan.

Askatasunaz gabetutako emakumeen profil kriminogenoak bazterketa-arrisku-faktore desberdinei erantzun diezaieke, gizonenak ez bezala, eta, askotan, genero-indarkeriagatik alde aurreko biktimizazio-ereduei erantzun diezaiekete, eta, horretarako, esku hartzeko programa egokiak behar dira.

Barne Ministerioak emakumeen espetxe-egoerari buruz argitaratutako azterlan batean ikus daitekeenez, askatasunaz gabetutako emakumeak, batez ere, biztanleriaren pisua funtsean maskulinoa den espetxeetan kokatzen dira. Hala gertatzen da gure kasuan, ez baitago zentro mistoak ez diren zentrorik (nahiz eta horietan emakumeen eta gizonen moduluak egon); hala ere, azpimarratu behar da Bizkaiko JEn ez dagoela erregimen arrunteko emakumeen sailik, eta, beraz, hirugarren mailan baino ez daude emakumeak. Espazio fisikoaren okupazio horrek espetxeko egonaldia egunerokotasuna baldintzatzen du, bai eta esku-hartze terapeutikoko diseinuen, jardueren eta erabili beharreko espazioen dimentsionamenduen analisia ere. Gizonezkoen biztanleriaren portzentajezko pisuak balantza desorekatzeko joera du. Preso gehienak gehienbat gizonezkoak diren espetxeetako moduluetan egoteak zaildu egin ditzake sailkapenaren eta kategorien irizpideak, eta emakume gazteak, helduak, prebentziokoak, zigortuak, primarioak eta berrerorleak espazioa partekatzea behartzen ditu.

Azterlan horretan bertan ikus daitekeenez, eskaintzen diren aisialdi, jolas edo kirol jardueri dagokienez, emakume gehienek uste dute jardura horiek ez direla nahikoak, monotonoak edo oso monotonoak, noizbehinkakoak edo oso noizbehinkakoak, eta era guztietako pertsonak kontuan hartu gabe diseinatu direla. Prestakuntza-programa espezifikoko txikiagoak izaten ziren gizonentzako prestatutakoekin alderatuta, eta, gainera, programa horietako gehienek emakumeen genero-rolak errepikatzen dituzte, eta, beraz, emakumeek gizartean duten rol tradizionala.



Emakumeek egindako lan ordainduak okerrago ordaindu izan dira, eta gutxi prestatu izan dira emakumeak behar bezala birlanertzeko. Espetxeetako diziplinaren eta kontrolaren eraginak eragin desberdina izaten du gizonengan eta emakumeengan, emakumeen egoerari buruzko estereotipoek irauten baitute.

» **Justiziaren** esparruan, arreta egokia eman nahi zaie indarkeria matxistaren biktimaren emakumeei. Arreta hori gizarte-zerbitzuen eremutik ematen diren baliabide eta zerbitzuekin osatzen da. Eremu horri buruzko datuak Gizarte Zerbitzuen atalean eman dira, eta, beraz, ez dira espazio honetan errepikatuko. Bi eremu horien arteko lankidetzaz ezinbestekoa da indarkeria hori jasaten duten emakumeei arreta integrala eskaintzeko.

Indarkeria matxistaren, familia barruko indarkeriaren eta sexu-askatasunaren aurkako indarkeriaren biktimei doako, aurrez aurreko eta berehalako laguntza juridikoa bermatzeko, eta babesgabetasun-egoeran dauden emakumeen ahultasun ekonomikoa murrizteko, indarrean jarraitzen du Legelarien Euskal Kontseiluaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren arteko hitzarmenak. Hitzarmen honek honako hauek hartzen ditu barne: salaketa eta babes-aginduren eskaera aurkeztu aurretik aurrez aurreko aholkularitza ematea; salaketa egiten laguntzea, bai eta babes-agindua eskatzen ere; babes-agindua emateko agerraldia egitea; eta epaiketa azkarra egitea, baldin eta agerraldia egiten den unean bertan edo hurrengo egunetan gertatzen bada.

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoek Sailari emandako datuen arabera, 2021ean 4.337 pertsona artatu dira; horietatik 4.005 emakumeak izan dira (% 92,35) eta 332 gizonak (% 7,65) etxeko indarkeriaren, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen arloko ofiziozko txandan.

Halaber, hitzarmen horren arabera, Legelarien Euskal Kontseiluak emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen arloko Ofiziozko Txandari atxikitako abokatuen hasierako eta etengabeko derrigorrezko prestakuntza bermatzen eta finantzatzen du. Hau da, ofiziozko txanda horretan sartu eta/edo egon nahi duten abokatuek ikastaro bat egin behar dute urtero, nahitaezkoa eta doakoa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloan, artatutako emakumeen bigarren biktimizazioa saihesteko.

2021ean, Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ) 2.829 pertsona artatu zituen guztira (1.220 2021aren aurretik; 1.609 berriak 2021ean); horietatik 2.412 emakumeak ziren (guztizkoaren % 85,26) eta 417 gizonak (% 14,74). Kontuan izan behar da BLZ mota guztietako delituen biktimak artatzen dituen zerbitzua dela, ez genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak bakarrik. Hala ere, ikusten da emakumeak direla zerbitzua erabiltzen duten pertsonen ehuneko handi bat.

GAKOA programa indarkeria matxistagatik espetxe-zigorra duten gizonekin esku hartzera zuzenduta dago. Gizon horiei zigorra eten egiten zaie Zigor Kodearen 80. artikulua eta hurrengoak aplikatuta. Kasu horietan, nahitaezkoa da zenbait debeku eta betebeharrak betetzea, etete-baldintza gisa; besteak beste, zigortuak tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren programetan parte hartzea. Programa terapeutikoa da, eta banakako eta taldeko esku-hartzeak egiten ditu genero-indarkeriako delituengatik kondenatutako pertsonak errehabilitatzeko. Programa horren helburu nagusia da emakumeen osotasun fisikoa eta psikikoa bermatzea eta zaintzea. Lana honako hauetara bideratuta dago: gizonak egindako ekintzaren erantzule egitera, emozioetan eta sentimenduetan sakontzera, indarkeriazko dinamikak edozein adierazpideetan bideratzera, genero-indarkeriaz jabetzera eta nork



bere buruari buruzko ezagutza hobetzeraz. 2013tik, Justizia Zuzendaritzaren mendeko Zigorrak Kudeatzeko Euskal Zerbitzuko kide da.

2021ean, Gakoa programaren bidez, 313 gizoni eman zitzaizen arreta (51 Araban, 132 Bizkaian eta 130 Gipuzkoan).

Azken urte honetan egindako saioen datu orokorrak honako hauek dira:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
BANAKAKO SAIOAK	1.818	1.213	638	3.669
TALDEKO SAIOAK	82	21	0	103
GUZTIRA	1.900	1.234	638	3.772

ALDATUZ Hezkuntza Programa, Zigor Kodearen 49. artikuluan aurreikusitako aukerekin bat etorritik, genero-indarkeriako delituak egiteagatik gizartearentzat lan egitera zigortutako pertsonentzako hezkuntza-programa da. Taldean esku hartzeko programa honen helburua da arau-hausleak bere ekintzei buruz hausnartzea, erantzukizuna bere gain hartzea eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea ahalbidetuko dieten tresnak eskuratzea, antzeko jokabideak errepikatzea saihestuz. 2021. urteari dagozkion datuak honako hauek dira:

GUZTIRA	
GARATUTAKO PROGRAMEN KOPURUA	18
TALDEKO SAIOAK	108
PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA	168

Illo horretan, nabarmendu behar da ALDATUZ programa sendotu egin dela, hezkuntza-programa berritzaile eta espezifikoa gisa, indarkeria matxistarekin lotutako delituengatik gizartearentzat lan egiteko zigorra jaso duten pertsonen zuzendua. Horrekin batera, ZKEZk GAKOA programa garatzen jarraituko du, mota horretako delituengatik kartzela-zigorrek etenda dituzten pertsonen zuzendutako programa terapeutikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako 5 epaitegi daude: 2, Bilbon, eta 1, Gasteizen, Barakaldon eta Donostian. Gainerako 10 barruti judizialean epaitegiak ez daude espezializatuta (mistoak dira). Bigarren mailako biktimizazioa saihesteko, aurreko legegintzaldian emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegien eta epaitegi espezializatuen espazioak egokitzen hasi ziren, biktima/erasotzailearen arteko konfrontazioa eragozteko, eta deklarazioak errepikatzea saihesteko ikus-entzunezko baliabideak eta interprete kualifikatuak jarri zitzaizkien. Espazio judizialen egokitzapen hori egiteko, 2020aren hasieran egindako dokumentu bat hartu zen oinarritzat. Dokumentu horrek Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiaren eta Epaitegi Mistoaren espazioen estandarrik definitzen zituen, eta espazio horietarako beharren estandarren



proposamen bat zehazten zuen. Definizio horretatik abiatuta, hainbat gaikuntza-obra egin dira. 2018. eta 2019. urteetan, Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Gasteizko Epaitegirako bulego berriak gaitzeko obrak egin ziren. 2020an, Donostiako Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiaren eta Azpeitia, Irun, Tolosa, Durango eta Gernikako mistoen espazioak eraberritzeko/egokitzeko obrak. 2021ean, helburu bereko obrak egin ziren Barakaldoko Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegian eta Amurrio, Bergara, Eibar, Balmaseda eta Getxoko mistoetan. Jarduerak 2022-2023an amaituko dira, Bilboko emakumeen aurkako indarkeriaren arloko 2 epaitegiak eraberritzeko eta handitzeko obrak gauzatuz.

MIGRAZIOAREN ETA ASILOAREN AZPIEREMUA

ALDERDI AIPAGARRIAK

» **Immigrazioari** dagokionez, Ikuspegiren datuen arabera, 2022an EAEn bizi ziren atzerritar jatorriko biztanleak 253.038 ziren guztira, eta EAEn bizi ziren biztanle guztien % 11,4. Atzerritar jatorriko biztanleen erdia baino gehiago emakumeak dira (% 52,3), eta presentzia handiagoa dute Bizkaian (% 52,9), Gipuzkoan (% 52,2) eta Araban (% 51).

Azpimarratu beharreko lehen datu bat, EAE autonomia-erkidego askotatik bereizten duena, honako hau da: aztertutako kolektiboan emakumeen pisua gizonena baino pixka bat handiagoa da. Alderdi hori, hein handi batean, EAEko egitura sozioekonomikoari eta etorkinen kolektiboa txertatzen den lan-nitxoei lotuta dago. Hala, emakume etorkinen okupazio-tasak handiagoak dira gizonenak baino. Aldi berean, krisiaren ondorioz, emakumeen biztanleria ez-aktiboak lan-merkatuan parte hartu behar izan du, krisiaren eraginaren ondoren familia-errentak galdu direlako eta langabeziak gora egin duelako nagusiki maskulinoak diren sektoreetan, hala nola eraikuntzan. Era berean, nabarmentzekoa da emakumeen enpleguaren kontzentrazio handia zenbait lan-nitxotan, hala nola merkataritzan edo ostalaritzan, eta, batez ere, etxeko zerbitzuetan, emakume etorkin landunen erdiak lan egiten baitu. Lan-merkatuko eskalafoi prekarioenetan pilatze horrek ezegonkortasun handia, gaitzifikazio handiagoa eta, oro har, lan-baldintza okerragoak eragiten ditu jatorri atzerritarreko gizonena baino. Horrela, emakumeek enplegua lortzeko aukera gehiago dituzte, baina lan-prekarietate handiagoaren kontura. Esanguratsuki, emakumeen okupazio-tasa gizonena baino handiagoa izan arren, gizonek hasten dituzte familia berriz elkartzeko prozedurak kasu gehienetan, hain zuzen ere emakumeek baino baliabide ekonomiko gehiago egiazta ditzaketelako. Gaineratu behar da, kontuan hartuta emakumeen ehuneko handi batek etxeko zerbitzuan lan egiten duela, etxeko barne langile bezala, eta, beraz, ezin dituztela beren seme-alabak berriz elkartu, ezin baitituzte zaindu, ezta haien arduraren hartu ere.

Immigrazioaren EAEko errealitatea, non emakumeek etxeko lanen sektorean egiten duten enpleguak pisu handia duen, finkatu besterik ez da egin. EAEn okupatuta dauden etorkin guztien artean (batez ere latinoamerikar jatorriko emakumeak) sektorerik garrantzitsuena da, eta, emakumeen kasuan, lanpostu guztien erdia da.

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan gero eta etorkin atzerritar gehiago egotea errealitate saihestezina da, eta kultura-aniztasun nabarmena eskaintzen du gure ingurunean. Hori dela eta, herri-administrazioek irmo jardun behar dute, gizarteratzea eta kulturen arteko aberastasuna bultzatzeko. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak badu Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025), Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren bitartez egina. Herritartasunaren,



Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren eremuan jarduteko V. Planaren ildoari eta beste aurrekari batzuei jarraituz, VI. Plana genero-ikuspegiak txertatzen du, zeharka. V. Planak jada jasotzen zuen ikuspegi horren garrantzia, atzerriko jatorri eta/edo nazionalitateko emakumeek askotariko diskriminazio-egoerei aurre egin behar dietelako: emakume izateagatik, etorkin atzerritarrak izateagatik, langile izateagatik, dokumentazio erregularrik ez edukitzeagatik batzuetan, gure hizkuntzak ez jakiteagatik eta abar (20. or.). Ikuspegi horretan, interseksionalitatea funtsezkoa dela uste dugu. Tresna analitiko horrek onartzen du egiturazko desberdintasunak hainbat faktore sozialen gainjartzetik eta elkarreraginetik abiatuta eratzten direla, hala nola generoa, etnia edo arraza eta klase soziala.

V. Planean emakumeei zuzendutako eremu espezifikorik ez bazegoen ere, VI. Plan honetan hala ezarri dugu elementu estrategikoak bereizi ditugunean; horien artean, atzerriar jatorriko emakumeen gizarte-errealitatea jorratzera eta hobetzera bideratutako neurri batzuk nabarmendu ditugu. Gainera, genero-ikuspegia presente dago beste jarduera-eremu batzuetan antolatutako beste neurri batzuei ekitean. Plan horretan, eragile bakoitzak modu koordinatuan garatu behar duen rola zehazten duen sistema berreraikitzeke beharra jasotzen da, eta, era berean, hura gidatzen duten helburu estrategikoak, jardun-eremuak, horietako bakoitzean aurreikusitako ekintzak eta arreta berezia behar duten kolektiboak ezartzen ditu. Beraz, beharrezkoa izango da genero-ikuspegia antolamendu honetan eta Plan honetan bildutako jardueren garapenean presente egon dadin zaintzea.

Helburu hori bera lortu nahi da emakumeekin eta emakumeentzat, eragile guztien lankidetzarekin eta ikuspegi interseksionalarekin, eta, 2019an sortu zenetik, Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroak Berdintasun Batzordea du. Batzorde horren lana, 2022an, joan den urteari buruzko Foroaren Memorian jasota dago.

SOLDATA ARRAKALAREN AZPIEREMUA

ALDERDI AIPAGARRIAK

»Soldata-arrakalaz ari gara, emakumeen eta gizonen batez besteko ordainsarian dagoen distantzia aipatzeko. Soldata-arrakalak lan-merkatuko diskriminazioa eta desberdintasunak islatzen ditu, praktikan, nagusiki emakumeei eragiten dietenak. Soldata-arrakala horrek eragin zuzena du Gizarte Segurantzako kotizazioetan eta ondoren pentsioak jasotzean, eta lotura estua du emakumeen autonomia ekonomiko txikiagoarekin eta pobrezia-indize handiagoekin.

Soldata-aldeari soldata-arrakala edo soldata-desberdintasuna ere esaten zaio, eta emakumeen eta gizonen batez besteko ordainsarien arteko aldeari egiten dio erreferentzia, betiere kontuan hartuta oinarriko soldata gisa eta soldatako eta aparteko osagarri gisa benetan jasotakoa. Oro har, soldata-arrakalak lan-merkatuko diskriminazioa eta desberdintasunak islatzen ditu, praktikan, nagusiki emakumeei eragiten dietenak.

Soldata-arrakala hainbat faktorek eragiten dute:

- Alde batetik, emakumeek egindako lanaren balorazio sozial eta ekonomiko txikiagoa. Balorazio apalago hori kualifikazio txikiko lanbide-kategorietan ematen da neurri handiagoan. Hau da, ez da gauza bera kobratzen balio bereko lanagatik, erabilitako balioespen-irizpideak eta horren ondoriozko soldata-osagarriak eguneratu gabe.



- Bestetik, lan-segregazioa. Emakumeek eta gizonen enpleguan dituzten posizioak, genero-harremanek markatuta: emakumeak berandu sartzen dira lan-sektore eta -maila desberdinetan, emakumeak kontzentratzen dira sektore eta lanbide batzuetan, emakume gutxiago daude erantzukizun-postuetan, lan-baldintza eskasagoak dituzte kontziliazio-premietan oinarrituta, etab.

- Emakumeak lan-munduan masiboki sartzeak ez zuen esan nahi familiako erantzukizunak modu ekitatiboan banatu zirenik emakumeen eta gizonen artean, baizik eta emakumeei esleitu zitzaizkien gehienbat. Beraz, emakumeak laneratzeak soldata-igoerei nahitaez uko egitea ekarri zuen.

- Indarrean dagoen lan-kulturak eta enpresa-kulturak erabateko dedikazioa eskatzen diote enpresari, eta lehentasuna bizitzako beste edozein alderdiri. Ordainsaria eta lanbide-sustapena dedikazio oso horri lotuta daude, eta emakume batzuek gutxiago erantzuten diote baldintza horri.

- Emakumeen artean goraka doan ibilbidea da, eta gero eta gizon gehiagok egiten dute bat ibilbide horrekin; aberastasuna espazio pertsonalaz eta pribatuaz gozatzeko denborarekin lotzen du, eta ez soldata handiagoarekin. Alde horretatik, uko egiten zaie erantzukizun handienei eta ordainsari handiagoei.

Emakundek 2021eko martxoan egindako txostenaren arabera *Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan*, 2018ko Soldata Egiturari buruzko Lau Urteko Inkestaren azterketatik lortutako datuen arabera –, EAEko langile bakoitzeko batez besteko urteko irabazia 28.470 eurokoa izan zen 2018an. Sexuaren arabera, urteko batez besteko irabazia 31.970 eurokoa izan zen gizonentzat eta 24.757 eurokoa emakumeentzat. Beraz, EAEn % 22,6ko soldata-arrakala dago (7.213 euro). Garrantzitsua da nabarmentzea 2015. urtearekin alderatuta, % 24,3 baitzen.

Orduko batez besteko irabaziari dagokionez, EAEko soldata-arraila % 9,55 da, 2015ean erregistratutakoa (% 12,83) baino txikiagoa, beraz. Arrakala hori jarduera-sektoreka aztertuz gero, ikusten da soldata-arrakala handiena zerbitzuen sektorean dagoela (% 21,8), sektore horretan emakume gehiagok egiten baitu lan, eta, ondoren, industrian (% 17,2).

Okupazioaren arabera, soldata-arrakala handiagoa dago okupazio baxuaren epigrafean bildutako okupazioetan: EAEko batez bestekoa baino % 25,5 handiagoa. Oro har, kualifikazio txikiagoko lanbideetan, aldea handitzeko joera dago. Bai batez besteko okupazioetan, bai baxuagoetan, behearazko joera ikusten da generoko soldata-arrakalaren datuari dagokionez.

Kontratu-motaren arabera, 2015ean eta 2009an gertatzen zen bezala, kontratu mugagabeko soldata-arrakala aldi baterako kontratuak dituztenen artean ikusten dena baino askoz handiagoa da: % 24,4 eta % 6, hurrenez hurren. Antzintasunak eta iraunkortasunari lotutako bestelako osagarriek azal dezakete hori.

Adinaren arabera azterketatik ondorioztatzen da 35 eta 54 urte bitartek dutela EAEn generoko soldata-arrakalaren daturik handiena, eta joera hori 2015ean ere ikusi zen. Emakumeen kasuan, tarte horiek bat datoz ugalketa-adinarekin eta familia-ingurunean mendekotasuna duten beste pertsona batzuen zaintzaile bihurtzen hasten diren adinarekin.

Beraz, soldata-arrakalak kausa askotarikoak eta konplexuak ditu, eta horiek murrizteko eta/edo ezabatze, hainbat mailatako ikuspegia behar da, honako alderdi hauetan oinarrituta: zuzeneko diskriminazioa; okupazioak



baloratzeko irizpideak; merkatuko desberdintasunak eta genero-estereotipoak, batez ere kontziliazioari eta erantzunkidetasunari dagokienez; eta enpresa-kultura, diskriminazio-sinesmen eta -faktoreetatik abiatuta sortzen dena. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak zeregin garrantzitsua izango du desberdintasun horri aurre egiteko eta soldata-berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko.



3.2. HELBURU ESTRATEGIKOAK

BERDINTASUN-GAIETAN ESKU HARTZEA								
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN PLANGINTZA ESTRATEGIKOA	Arduraduna	Kronograma			BATERAGARRITASUNA GOBERNUAREN PROGRAMAREKIN			
		2019	2020	2021	1.ONARRIA	2.ONARRIA	3.ONARRIA	4.ONARRIA
LEHENTASUNA DUTENAK	▶ 1. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea (BG.2)	Zerbitzu Zuzendaritza				13		
	▶ 2. Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea (BG.4)	Zerbitzu Zuzendaritza				13		
	▶ 3. Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere (BG.5)	Zerbitzu Zuzendaritza				13		
	▶ 4. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea (BG.9)	Zerbitzu Zuzendaritza				13		
	▶ 5. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea (BG.10)	Zerbitzu Zuzendaritza				13		
	▶ 6. Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan (BG.11)	Zerbitzu Zuzendaritza				13;10.2;10.3		
	▶ 7. Indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta integrala eta segurtasuna bermatzea, kalitatezko baliabide nahikoak, egokiak eta espezializatuak bermatuz.	Gizarte Politiketako eta Justiziako Sailburuordetzak				93		
	▶ 8. Soldata- arrakala murrizteko Sailari dagozkion Estrategiaren eta Plan Operatiboaren jarduerak garatzea.	Gizarte Politiketako Sailburuordetza				94		



▶ 9. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko herri-ituna bultzatzea	Emakunde Saila					93.2		
▶ 10. Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko IV. Planean jasotako neurriak garatzea, horien ebaluazioa egitea eta plan berri bat diseinatzea	Gizarte Politiketako Sailburuordetza					85		
▶ 11. Erronka Demografikorako Euskal Estrategia 2030 garatzea.	Gizarte Politiketako Sailburuordetza							141
▶ 12. Espetxe-sistema berdinzaleago baterantz aurrera egitea	Justizia Sailburuordetza					102		
▶ 13. Zainketen Itun Soziala bultzatzea	Gizarte Politiketako Sailburuordetza					83.5		
▶ 14. Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurkako 2022-2025 estrategia garatzea. Barnahus proiektu bat inplementatzea	Gizarte Politiketako Sailburuordetza					86		
▶ 15. EraBerean (Tratu-berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Sarea) programaren lan-plana diseinatu, ezarri eta ebaluatzea.	Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordetza					109.2		
▶ 16. Berdintasunaren gaiari buruzko berriak araudia onartzea eta garatzea (BG.1)	Sailburuordetza guztiak					13		
▶ 17. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea (BG.3)	Zerbitzu Zuzendaritza					13		
▶ 18. Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea (BG.6)	Sailburuordetza guztiak					13		



<p>▶ 19. Enplegu publikora sartzeko eta bertan gora egiteko hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea (BG.7)</p>	<p>Zerbitzu Zuzendaritza</p>				<p>13</p>		
<p>▶ 20. Komunikazioan berdintasuna txertatzea (BG.8)</p>	<p>Sailburuordetza guztiak</p>				<p>13</p>		
<p>▶ 21. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea (BG.12)</p>	<p>Sailburuordetza guztiak</p>				<p>13</p>		
<p>▶ 22. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea (BG.13)</p>	<p>Zerbitzu Zuzendaritza</p>				<p>13</p>		
<p>▶ 23. Emakumeek eta gizonek zuzendaritza-organo eta/edo pluripersonaletan ordezkari izateko aukerak bermatzea (BG.14)</p>	<p>Sailburuordetza guztiak</p>				<p>13</p>		
<p>▶ 24. Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero ikuspegia sartzea (BG.15)</p>	<p>Sailburuordetza guztiak</p>				<p>13</p>		
<p>▶ 25. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana garatzea Justizia Administrazioako langileen eremuan</p>	<p>Justizia Sailburuordetza</p>				<p>13</p>		
<p>▶ 26. Pobreziako eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden emakumeen kopurua murriztea.</p>	<p>Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburuordetza</p>				<p>76; 77</p>		
<p>▶ 27. Balio aldaketa sustatzeko politikak garatzea, sexuaren arabera pertsonen egokitasunaren genero estereotipo eta rola ezabatzea</p>	<p>Gizarte Politiketako Sailburuordetza eta Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordetza</p>				<p>95</p>		
<p>▶ 28. Indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatzea eta horien antzemate goiztiarra handitzea</p>	<p>Gizarte Politiketako Sailburuordetza eta Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordetza</p>				<p>86; 99; 13; 109; 3</p>		



<p>▶ 29. Sailak diseinatutako estrategietan genero-berdintasunaren arloan ezartzen diren neurriak garatzea</p>	<p>Gizarte Politiketako Sailburuordetza</p>				<p>13</p>		
<p>▶ 30. Herritartasunari, Immigrazioari eta Asiloari buruzko Kulturarteko VI. Planaren berdintasun-arloko neurriak garatzea</p>	<p>Gizarte Politiketako Sailburuordetza</p>				<p>88, 89</p>		
<p>▶ 31. Erantzunkidetasuna bultzatu eta denboraren erabilera genero arrakala gutxitzea</p>	<p>Gizarte Politiketako eta Justiziako Sailburuordetza</p>				<p>83.5, 94.7</p>		
<p>▶ 32. LGTBI, etorkinak, ijitoak taldeetako eta, bereziki, horietako emakumeen tratu berdintasuna eta diskriminazio eza bultzatuko duten estrategiak garatzea</p>	<p>Gizarte Politiketako Sailburuordetza eta Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordetza</p>				<p>77, 96</p>		
<p>▶ 33. Motibazio politikoko testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legea garatzea eta ezartzea</p>	<p>Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordetza</p>				<p>101</p>		
<p>▶ 34. Memoria historikoaren egia argitzeko eta aitortzeko prozesua sustatzea, terrorismoaren edo indarkeriaren biktime diren emakumeek pairatutako egoerak agerian uzteko.</p>	<p>Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordetza</p>				<p>101</p>		

4 PLANA KUDEATZEKO EREDUA

Ondoren, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana modu koordinatuan eta gardenean ezartzea bermatuko duen kudeaketa-eredua aurkezten dugu; eredu horrek, aldi berean, Sailaren barruan eskuratutako aurrerapenak eta lorpenak ebaluatzeko aukera emango du, baita gizartean eta herritarrekin izan dituenak ere, emaitza horien gizarteratze aldera.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak ezartzen du berdintasunaren arloan zer esku-hartze ildo hartu behar dituzten kontuan XII. Legegintzaldian sailari atxikitako zuzendaritza eta organismoak. Urte anitzeko dokumentu honetan helburu generiko eta estrategikoak aurreikusten dira eta horiek ondoren urteko plangintzan jasoko diren jarduerak orientatuko dituzte, izaera operatibo eta zehatzagoarekin.

4.1. BERDINTASUNERAKO URTEKO PLANGINTZA

Horrenbestez, **urteko plan bat** prestatuko da, **urtero berdintasun-politikak ezartzeko plangintza jasoko duena**, eta bera ebaluatuko da ondoren. Esandako plan horretan, helburuak, ekintzak, kronograma (hiruhilekoa) eta aurrekontua zehaztu beharko dira.

Gainera, urteko plangintzaren osagarri modura, urteko planari buruzko informazio laburtua jasotzeko aukera aurreikusten da, sailarteko eta sailen barruko koordinazio-egiturak jakinaren gainean ipintzeko.

4.2. BERDINTASUNERAKO EGITURAK

Ondoren, Sailak berdintasun-politiken alorrean zer oinarrizko egituratan parte hartzen duen azalduko da modu eskematikoan, planaren esparruan betiere:



BULTZATZEKO EGITURAK

EMAKUNDE da EAEn berdintasun-politikak sustatzeaz, aholkularitza emateaz, plangintza egiteaz eta ebaluatzeaz arduratuko den den erakundea.

SAILAREN BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEA plana egikaritzeaz, haren segimendua egiteaz eta ebaluatzeaz arduratuko da, eta Saileko organoei eta langileei aholkularitza eskainiko die

ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEARTEKO BATZORDEA Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta toki-erakundeek berdintasunaren alorrean egiten dituzten politikak eta programak koordinatzeaz arduratzen den organoa da; **erakundearteko talde tekniko** bat du, berdintasunean espezializatutako teknikalari osatuta

ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEARTEKO AKORDIOAREN SEGIMENDU-BATZORDEA Erakundearteko **talde tekniko** bat dauka, bertan parte hartzen duten pertsonen laguntza emateko.

ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEARTEKO BATZORDEA Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-jarduerak koordinatzeko organoa da eta berdintasunaren arloan aditua den **Sailarteko talde teknikoaren** babesa du. Unitateetako teknikariek osatzen dute

SAILARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

SAILARTEKO TALDE TEKNIKOAK

Berdintasuneko unitateek eurek gidatuta eta koordinatuta, haien helburua berdintasun-politikak modu efektiboan aplikatzen laguntzea da sailari atxikitako edo lotutako zuzendaritzetan, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan; horretarako, informazioa eta laguntza jasoko dute berdintasun-politikak garatzeko prozesuaren fase **hakinitzean**.

4.3. JARRAIPEN-SISTEMA

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren jarraipen-sistema oinarritzko erreminta izango da; haren bidez, Sailak XII. Legealdian egindako berdintasun-politikaren jardunak, lorpenak eta inpaktuak hausnartu ahal izango dira. Alde horretatik, emaitza positiboak izan dituzten jardunbideak eta kudeaketa-ereduak zein diren adieraziko du, baita hobetzeko beharra dutenak ere; aldi berean, hasieran aurreikusi gabeko jarduerak baina ezarpen-prozesuak aurrera egin ahala egokitzen jotakoak zein diren ere identifikatuko du. Azkenik, erabaki politikoak eta teknikoak hartzen laguntzeko, berdintasuna Sailaren erakunde-kulturan, jardunean eta esku-hartzean biltzen dela bermatzeko.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak onartutako konpromisoari **lau segimendu mota** egitea dago aurreikusita:



- ▶ Lehenik eta behin, Sailak eta haren organismo publikoek **urtero informazioa xehatua emango diote Emakunderi**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana ebaluatzeko, erakunde publiko guztietarako apropos diseinatutako segimendu mekanizatua eta telematikoa egiteko sistemaren bidez: [Berdintasunerako Planaren ebaluazioa eta segimendua egiteko aplikazioa](#).

Segimendu horren emaitza urtero islatuko da **agintari publikoen jardunari buruzko memoria** batean, Emakundek argitaratzeko duen berdintasun-plana egikaritzuz. Txosten horiek emandako informazioa biltzen dute, eta EAEko administrazio publiko guztiaren jardueren analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzen dute: [Politika publikoen ebaluazioa](#)

Horrez gain, informazioa biltzeko eta zabaltzeko beste sistema batzuk ere gaitu dira, EAEko administrazioek egindako jarduerekin lotuta: **Berdintasun-mapa eta jardunbide egokien bankua**.

- ▶ Bigarrenik, Sailak legealdiaren bi unetan jakinarazi beharko du Emakundek koordinatzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen bidez: **legegintzaldiko lehentasunak ezartzen erdibidean eta amaieran izandako segimendua**; horretarako diseinatutako txantiloien bidez eskumenak aintzat hartuta identifikatutakoak.
- ▶ Hirugarrenik, VII planaren ebaluazioak berdintasun-politiken epe ertain eta luzerako eraginaren ebaluazioa aurreikusten du, sintesi estrategikoko adierazle batzuen bitartez, batez ere, Genero Berdintasunaren Indizean oinarrituta: **EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII Planaren adierazle estrategikoen sistemaren jarraipena**. Sailak, bere eskumenen arabera eta inplikaturako beste erakunde publikoekin batera, jarraipenean kolaboratuko du, batez ere, adierazle horien aurrerapenean. Horrek, Euskadiko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialeko eremu guztietan, berdintasunean aurrera egiteko elkarlana eta koordinazioa eskatuko du. Horrela Euskadi, Europako herrialde aurreratuenen artean kokatu ahal izango da genero berdintasunean.
- ▶ Azkenik, Sailak berak informazioa jasotzeko metodo soila eta arina aurreikusi du; haren bidez, **urteko dokumentu labur batean** Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren betetze-maila islatuko da. Esandako dokumentu horren bidez, Emakumeen eta Gizonen Sailarteko Batzordean urteko planaren egikaritze-maila adieraziko dute.

URTEKO PLANAREN JARRAIPENA EGITEKO LABURPEN-FITXEN EREDUA



Urteko Planaren
jarraipena

4.4. KOMUNIKAZIO-SISTEMA

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren beste oinarrietako bat –diseinuaren, kudeaketaren, ezarpenaren eta ebaluazioaren fasean– Saileko langileen inplikazioa lortzea da, dela politikoa, dela teknikoa, sailarteko koordinazio bikain baten bidez. Era berean, garrantzitsua da gizarte-partaidetzarako prozesuak artikulatzea, emakumeen interesak defendatzen dituen elkarte-ehunari arreta berezia eskainita.

Alde horretatik, planak komunikazio ona eskatu du **barruan zein kanpoan**, Sailak, bere eskumen-esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak sustatzeko hartzen dituen konpromisoak sozializatzeko. Esandako komunikazio-plan horrek bi une garrantzitsu izango ditu egikaritzean: plana onartzeko faseko komunikazioa eta plana ezartzeko garaiko komunikazioa.

KOMUNIKAZIO-PLANA



Komunikazio-plana

4.5. AURREKONTU-SISTEMA

Nabarmentzekoa da gogoraraztea plan hau txertatu ahal izateko ezinbestekoa dela beharrezko bitartekoak edukitzea.

Alde horretatik, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (martxoaren 18ko 4/2005), hauxe dio 14. artikuluan: «Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotako eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan».**



Horrez gain, **administrazio autonomikoa eta foru-administrazioa ordezkatzeko dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak 2016ko uztailaren 21ean adostu zuen *poliki-poliki handitu egin beharko dela esandako administrazio horietan berdintasun-politikerara bideratutako aurrekontuen portzentajea.***

Horrenbestez, bitarteko horiek modu xeheagoan ipini beharko dira urteko planetan, legealdi honetan zehaztuetan. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da adieraztea aurrekontua, batetik, berdintasunerako administrazio-unitate baterako partida espezifiko batean banakatuko dela, eta, bestetik, urteko planetan aurreikusitako ekintzak ezartzeko aurrekontu propio batean.



BERDINTASUNA

**Berdinetik berdiner,
zalantzarik gabe.**